

Sanjosetako bertso-saioa hilaren 19an izango da Igorren

17. orrialdea

Binakako Master Laboral Kutxako finalera heldu da Amaia Aldai

Aldai-Mendizabal bikotea urten zan garaile martiaren 11n Laudion jokatuako Emakume Master Cupeko atzen finalerdian. Holan, martiaren 26an Zarautzen jokatu dabe finala. Martiaren 8an osterak klubaren arteko Euskal Ligako finala irabazi eban Aldaik Enara Gamindegaz. **13. orrialdea**



Futboleko gizonezkoen Arratia A taldea lidertzan dago

12. orrialdea

Igorreko bardintasun egoeraren diagnostikoa eta Areatzan III. Plana aurkeztu dabez

Areatzako III. bardintasun plana onartu beharko dau osoko bilkurak eta 2023tik 2026ra arteko indarraldia izango dau. Igorreko Emakume eta Gizonen Bardintasun Egoeraren Diagnostikoa barriz, Igorreko bardintasun plana egiteko abiapuntua izango da. Martiaren 2an aurkeztu ziran biak jentearrean. **8., 9. eta 10. orrialdeak**



100 eta gehiago



Udalari Euskaldunen Mankomunitatearen historian ehun udalen lan-ga gaintzea mugaria izango da. Hori dala-ta, ekitaldia egingo da Azpeitian. Gurean bost udal dagoz UEMAn: Arantzazu, Areatza, Artea, Dima eta Igorre. UEMAK antolatutako Orozkotik Dimara joango dan udaleku ibiltarirako izen-emotea be zabalik dago. **5. eta 6. orrialdeak**

IGORRE

BBK Mendi Film-eko pelikulak egongo dira ikusgai Kultur Etxean

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia zinemaldiaren 2022ko pelikularik onenak ikusi ahal izango dira Igorreko Kultur Etxean, Mendi Tour zine ziklo ibiltariaren barruan. Aurten 7 film aukeratu ditue eta martiaren 23an eta 24an, 19:30ean, egongo dira ikusgai Lasarte Aretoan. **13. orrialdea**

AREATZA/DIMA/IGORRE

Laburbirak 7 film labur euskeraz ikusteko aukerea eskainiko dau

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dauan Laburbirak, euskerazko film laburren zirkuituak, martiaren 6tik apirilaren 5era, zazpi film labur eskainiko ditu 32 herritan; tartean, Areatzan, Diman eta Igorren. Igorren 18an, Diman 24an eta Areatzan 31n ikusi ahal izango dira filmok. **14. orrialdea**

AREATZA

Areatza ezetuteko audiogida bat egin dabe

Areatzako kalearte, balkoi, etxe-tako bebarru eta monumentuak ezetuteko, hamar geldiuneko ibilbide bat proposatzen dau audiogidak. Areatzako Udala eta Gorbeialde Landa Garapen Alkartearen arteko alkarlanari esker egin dau aurrera proiektuak eta martiaren 19an, 11:00etan egingo da aurkezpena Gudarien Plazan. Helburu bi ditu: Areatzako historia modu erraz baten ezetuten emotea eta turismoari be bultzadea emotea.

Merkadua be egongo da egun horretan Areatzan, eta aurkezpenaren ostean, fanfarria bat ibiliko da tabernaz taberna. **5. orrialdea**

INMOBILIARIA

Larrea

Promozioak, pisuak, etxeak, baserriak, lurak, txaletak...

ARRATIAKO BAZTERRAK ZEIN POLITAK DIREN!

Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
 WhatsApp 660 452 420

EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA

- PSIKOLOGIA: umeak, gazteak eta helduak
- LOGOPEDIA
- LAGUNTZA PSIKOEDUKATIBOA
- PSIKOMOTRIZIDADEA
- GURASO ESKOLA
- BETI ERANTZUNIK ONENA EMOTEKO PREST!

Lehendakari Agirre 4, Igorre · 652 702 650
maitealdekoa@gmail.com [ekineanpsikologiazentrua](https://www.instagram.com/ekineanpsikologiazentrua)

Literatura txokoa

MAUS


1978an hasi eban Art Spiegelmanek komiki hau, eta handik hamar bat urtera amaitu. Argialetxe txiki bat, epeka ateraten ziran kapituluak... Inor gitxi ekian obra hori komikiaren gorentasuna izatera pasauko zana, eta oindino gitxiago, klasiko bihurtu ez eze, Angulemak saria eta batez be Pulitzer irabaziko ebanik 1992an. Lehenengoz eta momentuz, azkenengoz.

Dana hasi zan parke baten, Vladek aitak Art semeari Bigarren Mundu Gerrako pasadizoak kontetan hasi zanean. Art ohartu zan gauza bitaz: urre gorria zirala aitaren kontuak eta memoria gorde behar ebala, berak ekian bide bakarretik, irudiakaz. Orduak grabau ebazan eta gero astiro-astiro forma emon eutsen. Hartara,

imaginatu eban uniberso bat non juduak arratoiak ziran eta naziak katuak. Eta hari horri tiraka, hasi 1935ean eta 1945era arte gurasoek bizi izandakoa kontetan dau, ghettoa, gerrea, Holokaustoa. Baina badauka besterik be liburuak, Art beraren pentsamolde ezkorra, amaren eza (bere buruaz beste egin eban), New Yorkeko bizitza gerora... Bai gaietan, bai alkarizketa eta erregistroetan, bai irudiaren trataeran kaleidoskopioa da *Maus*. Abangoardiako ideak zuri-baltzez. Urte luzeko hutsunea betetera dator oin Julen Gabiriaren eskutik, euskerazko lehen *Mausa*. Zaharbarritzaile finek altzariak erabat barrizatzen ez daben legetxe, itxiaz zahararren arrastoak nongura, itzultzaileak

hautatu dau hizkuntza oso bereziz euskeratzea. Alegia, Gabiria berak adierazo eban, desikasi egin behar izan ebala, ondo maisuki desikasi be. Jatorrizkoan, protagonistek yiddisha eta ingeles okerra darabil, eta txarto esanekoak be asmau behar izan dauz, eragiketa konpleju besteko ederra. Astiberri argialetxeak, ohiko dauan moduan, edizino landu eta xarmanta kaleratu deusku. Holan ba, klasiko honek unibersalak diran balio, amets, kezka, bildur, ardurak ekarriko deuskuz behin eta barriz. Oingoan euskeraz. Zorionekoak gu.

@fantomastxiki



Art Spiegelman. Itzultzailea: Julen Gabiria

Maus

Astiberri argialetxea, 2022

296 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Martiaren 13tik 19ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 20tik 26ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 27tik apirilaren 2ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 91 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrea. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa hone-tara bialdu zure gutuna: begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Diman askotariko personak bizi gara, politikari ustelen bat barne

Ia herri guztietan legez, jente aniztasun handia dago Diman.

Jente ospetsua bizi da, batez be tirada handiko komunikabideetan eta, batez be, Arratiako BEGITU nabarmen zuten kirolariak: Itziar Zabala, Tubi, Atutxa, Amaia Aldai, lehen Prieto; musika eta abestiko jentea, Bihotz Gorospe, David "Houston"; idazleak: Rafa Ugalde, Abel Ariznabarreta eta Zefe Ziarrusta. Zientziari ekarpena egiten deustien unibersidade arloko jentea. Diman bizi garan gehienok, jakina, jente arrunta gara, eta horreetako asko konprometiduta gagoz gure herria eta mundua apur bat zoriontsuago, bardintsuago eta justuago egiteko oinarritzko jarduera kultural, sozial eta politikoakaz.

Era berean, Dimakoak dira erakunde garrantzitsu batzuk zuzentzen eta kudeatzen dituen politikariak, edo alderdiko ordezkari hautatuak, EAJkoak, ulertzen da. Bitxia da, nahiz eta oin dala hamarkada askotatik hona alderdia gitxiengoa izan dan herri mailan, Dimak erakunde publiko eta pribaduetan era guztietako postuak elikatzen dituen politikoak emoten jarraitzen dau. Eta ustelen bat be bai.

Xabier Sánchez Robleseri buruz nabil. Espainiako Auzitegi Gorenak 7 urteko kartzela zigorra ezarri eutsan joan dan urtailean, De Miguel auzian, prebrikazinoagai-

tik, legez kanpoko alkarte baten modu aktiboan sartzeagaitik eta funts publikoak bidegabe erabiltzea, dokumentuak faltsutzea eta influentzia-trafikoa egotzita. Eta zergaitik ez da horretaz berba egiten Diman eta Arratian? Alderdi eta enpresarien ustelkeria kasuengaitik eskandalizetan gara, estadu mailakoengaitik, adibidez, baina beste leku batera begiratzeko dogu hurreko ustel batek jotzen gaituanean. BEGITUk, adibidez, zergaitik ez deustso kasuari eskaintzen merezi dauan tratamendua? Zergaitik ez da horretaz berba egiten poteoan, alkarteen bileretan, udalbatzarrean? Erasotzaile matxista bat danean, atoa berba egiten da horri buruz, publikoki salatzen da, protokoloa apliketan da, kontzentrazioak egiten dira, biktimeari lagunduten joko, eta hori oso ondo dago, aurrerapen sozial eta politiko handia da. Eta auzotar bat bere kargu publikoaz baliatzen danean diru publikoagaz delituak egiteko, guztion diruagaz, ez al da gizarte osoaren aurkako eraso, erantzun sozial sendoa merezi dauana?

Ez da onargarria, ez da jasangarria persona gehienok bizitza duina eta komunitarioa izateko ahalegin handia egiten dogun bitartean, euren postu publikoetatik eta guztion diruagaz lagunen eta, akaso, Alderdiaren boltsikoak beteten dituan jentea egotea.

Jasota itxi gura dot nire hase-rra eta Xabier Sánchez Roblesen aurkako nire salaketea, ustela izateagaitik, bai eta prozesu judizialean urte honeetan guztietan babesa emon deustan EAJ alderdiarena be. Era berean, kezka adierazo gura dot gai hau lupa sozialaren erdigunean jartzeko interes orokorrik ez dagoalako. Ustelkeriaren existentzia, batez be arlo publikoan, naturaltasunez onartzen dauan gizartea, hondamendira kondenauta dago.

BERMA GOMEZ EDESA

ERETXIA



ZULAI GIL

Kazetaria eta soziologoa

Euskal Herria-Venezuela

Esker ona adierazo gura dot hemen egoteagaitik; Euskal Herriak gure bihotzetan leku bat dauka. Izan be, Simon Bolivar gure askatzaileak, hemen eukan bere jatorria. Haren abizena Bolivar zan, Bizkaikoa, juxtu oin nagoan lurraldekoa da. Bolivar familiak errota bat eregi eban bere sasoi-an. Bolibarrek errotearen ibarra esan gura dau eta leku hau Ziortza-Bolibar da Simon Bolivarren herria.

Bolivarren proiektu historikoa, mugetatik eta espaziotik harago doa. Patria Handia dalakoa, mundu bidezkoagoa egiteko ametsak posible dirala jakitea da, eta gure bihotzen poza bezain handia da, batez be, gizakiak salbetako bidean. Bizi doguzan istorioak gara, nire egun guztien alaba naz, ez dakit hori ete dan oin batzean dodan urte kopurua... eta Bolivarren oinordekoa sentiduten naz, 200 urte edo 500 urte izan daikedaz, Bolivarrek Euskal Herrian egin ebazan pausuak eta bere usaina lur honetan geratu zala imajinetan dodanean. Erresistentzia urteak iraultza Bolivarianotik ulertzen doguz, blokeo-eraso guztiei duintasunez aurre egiten segiduten dau-eta iraultzak. Gora bizitza, gora maitasuna, gora minari kantetea, gora pozari kantetea eta gaur, eskerrik asko Euskal Herrian egoteko daukadan aukereagaitik. Maitasuna ospatuten dot egunotan, Patria Handiaren batasunaren idea bolibarianoa goratuz.

Hemendik pasau zan Bolivar. Euskal Herria eta Venezuela senideak gara; herri bi gara batasuna, gizarteratzea eta duintasunerako

bidea goratzen; geure Historien parean ipiniz. Gaur bakeari kantetan deustagu, zorionik handienagaitik, gozoa dalako bizirik egotea eta baita lurak zapaltzea eta Euskal Herria inguratzen dauan itxaropenaren berde ederra ikustea be. Pozten naz bidezidor honeetatik Bolivar libre ibili izan zala jakitean! Persona libreak bakarrik dira askatzaile. Hunkitu egiten nau, amets kolektiboaren alde, egokitzen jakun aberri handi horren txokoa zer egiten dogun ikustekaz.

Afektuen iraultza bat gara. Gure militantziaren gauzarik zoragarri-netako bat da taldean burrukan egiteko gure modua, eta gure artean, lagun, kamarada, nebarrebak garala. Zoragarria da nebarreba deitzea odoleko familiakoa ez danari, baina ideetan eta burrukan bat egitean izen hori merezi dauanari, eta, gainera, burrukan, hainbestetan irabazi dauanean! Gure herriak senideak dira eta gure batasuna garaiezina da. Azken finean, egun honeek dira inoz hiltzen ez diranak, istorioak egiten dituan jentearenak; alde guztietatik maitasunez betetako topaketa apartak dira, magiaz eta kolorez bete eban proiektu historiko baten ondorio, oindino egiteko asko dogun arren. Ez itxi kapitalismoaren saminak gu hiltzen. Ez esan "amen" kolonialismoari. Berreskuratu behar doguz berbea eta utopia, prisa barik eta memoria eta identidadeagaz. Sareak egiten dituen eta norberaren bihotzaren eta besteen artean atea zabalduten laguntzen daben eskuak jarri, eta batez be etorkizuna egin, eta oraina izan behar gara.

Hori gabiz egiten lur eder honetan, jakintzak batu eta geuregenatzen, Elikagaien Subiranotasunetik ikasten, erein eta uzta batzetik ikasten, hornidurarako plan estrategikoak sortzeako. Elikadura burujaubetza garatzeko eta defendiduteko konzientzia barria hartzean dogu mehatxatzen deuskun arriskuaren aurrean, Artea Sarean parte hartuta, eta borondatezko lanak militante baten bizitzan daukan garrantzia aktibauz. Beraz hemen gagoz, Venezuela eta Euskal Herria, batzean gaituan duintasuna besarkatzen, eta etenbarik sufriduten dogun blokeoa salatzen. BEGITU maitasun beste proba bat da. Eskerrik asko.

* **Erredakzinoan itzulia**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXI). Kale berbakunea sustatu guran

ARIKETAK (ERANTZUNAK HURRENGO ZENBAKIAN)

Hi motel! Ordua izan _____ (da) hotzak joan eta beroak etorteko!! Hazurretaraino euki _____ (dodaz) sartuta hotzak eta!!

Ba oindino ibili hadi zuhur, ze klima aldaketa honegaz _____ (ez dakigu) ze etorri leikegun eta.

Heuk esan _____ (dozu) egia ointxe, goizetan janzteko be gatx _____ (dago) asuntua.



LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Hala balitz, hobe

Hogeigarren mendeko ezkerreko mobimentuen militantziak Greba Orokor Iraultzailea izan eban amets. Gaur egun barriz, hiztegi zaharkituaren berba baztertuen moltsoan ostendu egin dogu kontzeptua. Anakronikoa ei da Greba Orokor Iraultzailea aitaztea, ez ei da zentzuzkoa lan eta ekonomia sektore desbardinetan eragina dauan greba orokor batek gizarte egitura eraldatzeko gaitasuna izan daikenik sinistea, edota oindino okerrago, gizarte egitura eraldatzeko legitimidaderek daukanik. Berba erabilera baztertu eta kontzeptua bera galdu dogu. Gaurko iraultza, egoera zehatz baten sortutako giza mobimentuaren ondorioz eraginda baino, eguneroko aldaketa txikiez osotuten dala sinistu gura dogu. Erabateko aldaketa soziala norberak egiten dauan egunero eraldaketatik datorrela iruntsi gura dogu... Eztabaidea baino ez dot luzatu gura,

baina geure burua engainetan ez ete gabizan otuten jata.

Ustezko transizino demokratikoaren sasoi haretan, Greba Orokor Iraultzailea garatzeko baldintza subjektiboak bete, baina objektiboak ez zirala emoten esaten genduan; Greba Orokorra eta iraultza egiteko ilusinoz beteta gengoan, baina gizarte eta ekonomia baldintzak ez zirala egokiak, alegia.

Gaur barriz, kontrakoa gertatzen da; baldintza objektiboak egon badagoz, langile eta jente-artekoaren haserrea nabarmena da. Hamaika errazoi dago, prezio eta hipoteken igoerea, kontratuen prekariedadea, zerbitzu publikoen desegituratzea, pobrezia maila, ingurune krisia, energia eta lehengaien pribatizazio eta negozioa, banka eta oligopolioen lukurreria -lukurreria, por zierto; Erdi Aroan jada delituzat jotzen zan portaerea-, injustizia patriarkala, migrazio krisia, gerrea, militarismoa eta amaierarik bako eta abar luzea... Baina baldintza subjektiboak falta doguz oingoan, iraultza egiteko, mundua eraldatzeko gogo eta ilusinoa faltea, alegia.

Eta hementxe gagoz antxinako erronkak ebatzi barik eta ebaztear, norabiderik barik eta duda-mudan, edota bakotzak egunero egiten dituan aldaketa txikiez mundua eraldatuko dauala sinistu guran. Hala balitz, hobe!

ZERTZEAN



KARLOS ARETXABALETA

Itsasoari oda

Itsaso maitea, zeuk gaztetan egin bezala, gaur ametsetan nengoela, ni zu bilakatu naiz, eta zu ni bilakatu zara.

Ametsetan barrena, arimaren barrunbeetara soilik hel daitekeen laba herdoila erosi nion orain gutxi portuko marinel bati.

Eta Andre Marietarako, propio, arrantzatua den hegaluzea izango banintz bezala, nire burua zabaltzeari ekin diot oraintxe bertan komuneko perrailean.

Beldur naiz. Izerdi gorria, izerdi hotza irten baita ene gorputzeko zirrikitu guztietatik. Ene sudurrak, negar-malkotan tantaka, herriko iturria zer dirudi ba!

Banoa. Bisturiaren mutur zorrotza sartu dut bular aldean eta miseria jariora geldu ezina da. Minik ez, tutik ez.

Giltzek ateak zabaltzen dituzten bezala, herdoilak jandako labanak nire gorputz ihartua ireki du goitik behera, bular beltzetik ia-ia lurrera; bestelako ziorik izango ez balu bezala.

Birikak atera ditut, gibel urdina ere bai. Hesteak atera ditut, zainak eta arteriak, baita barea eta pankrea ere. Saihets hezurak atera ditut, urdail zikina eta heste gorria ere bai.

Azkenik bihotza atera dut, eta orbita aspaldi galdu zuten begiekin arretaz begiratu diot. Dantzan dabil oraindik, taupaka oraindik, eritimoa gorde ohi duen traineruak bezala, tempo galdu barik. Gorputzetik atera ditudan altxor guztiak bezala, bihotza ere bazter batera bota dut, kala-txoriak dauden bazterrerara; ez baita bilatzen ari naizena.

Non dago, bada, neure arima? Edo zeurea, alegia. Eskuekin tolesturak hartu eta akordeoia bainitzan, aurkitzen ahalegindu naiz. Horretan tematu naiz, zeure tolestura amaigabeen artean bilatu dut, barkuek utzitako ubera irrazionalak razionalizatu nahi izan ditut...

Baina deus ez.

Nik uste nuen itsasoak arima izan bazuela.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerre, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Kepa Intxaustik egindako bertso honegaz agurtu gura dogu Juan Mari Aizarna Arratiako Gurutze Gorriakook.

Juan Mari agurtu arren joan dan osteguneari izen handia daukazu herrirako jarduneari eta Gurutze Gorriko ohorezko albumean. Babestuta egon gara zure epeltasunean ospital, mediku edo mendiko erdiguneari edozer eskatu eta baiezko erantzuneari. Faltan botatzen zaitugu agurtzen garen unean; malko bat erortzen zaigu oroitzen zaituguneari.

Arratiako Gurutze Gorria



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beerredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa
Bidebarri 1. behea
48100 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejota Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

AREATZA

Areatzako audiogidaren aurkezpena eta merkadua egingo ditue hilaren 19an

Ibilbide gidatuagaz estreinauko da audiogida.

Areatzako Udala eta Gorbeialde Landa Garapen

Alkartearen arteko alkarlanari esker egin da, herriko

historia ezetuten emon eta turismoa bultzatzeko.

Erredakzioa

Audiogidaren aurkezpen eta bisita gidatua, 11:00etan hasiko da. Egun horretan, 10:00etatik 15:00etara, "Herri bat merkatu bat" proiektuko merkadua be egongo da plazan eta 12:30etik aurrera, RkeR euskal fanfarria, ibiliko da herrian zehar.

Audiogidak "momentuz" 10 geldiuene ditu eta uribilduaren alde zahar historikoaren nondik norakoak azalduten ditu. Ibilbide zirkular bat proposatzen dau, ordubeteko, eta kalearte, balkoi, etxeetako bebarru eta beste bazter batzuen historia eta istorioak kontetan dira audiogidan. Ibilbide honetako eraikinek monumentu izendapen ofiziala daukie. "Audiogidak Areatzako ibilbide historikoa deskribiduten dau, bere sorreratik hasi, Arragoetarantza egindako hasikerako hedapena kontuan hartuz, Askatasun kalearen sorre-

rak herrian euki ebazan ondorioak aztertuz eta gaur egunera heldu arte. Eraikin esanguratsuen deskribapen laburra be egiten dau, esate baterako, Gortazar jauregia, Mudejar etxea, Areatzako eleizea... Ibilbide gidatuaren dokumentazioa azken urteetan Areatzako ibilbide gidatuen ardurua izan dauan Mikel Urrizek egin dau" azaldu deutso BEGITURI Asier Garcia Areatzako alkateak.

Audiogidaren kostua 17.584,93 euro izan da; proiektuaren %80a gitxi gorabehera Gorbeialdek finantziatu dau eta beste %20a Areatzako Udalak.

Edukiak eskuratzeko moduak
Parketxean dagozan audiogidak erabilia, eu.gorbeiaeskadi.com/areatza estekan dagozan audioak deskargautu edo geldiuene baxotxean dagoan plakearen QR kodea aktibauz entzun daitezke azalpenak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

UEMA 100 udal baino gehiago izatera helduko da martiaren 25ean

Ehun udalen langa gainditzea mugarrria izango da Udalerri Euskaldunen

Mankomunitatearen historian. Hori dala-ta, ekitaldia egingo da Azpeitiko Soreasu

Antzokian. Ekitaldian, udal horreen guztien lana eta udalerrri euskaldunen garrantzia ez

ezik, euskereari eusteko eta euskerea bizibarrizteko egin dan ahalegina ikusiarazo eta

omenduko da. Gurean bost udal dagoz UEMAn: Arantzazu, Areatza, Artea, Dima eta Igorre.

Erredakzioa

Ilaski Serrano eta Antton Telleria kazetariak aurkeztuko dabe ekitaldia. Ines Osinaga eta Estixu Pinatxo musikariek, Elene Carreto eta Ioar Labat jantzariek, Jon Maia bertsolari eta musikariak eta Imanol Epelde irakasle, musikari eta youtuberrak be parte hartuko dabe, besteak beste.


Euskal Herriko erakunde publiko nagusien zein euskalgintzaren ordezkariak be hartuko dabe berbea, eta UEMAn ibilbidea erakutsiko dauan dokumentala be ikusi ahal izango da.

UEMAko kide diran 100 udal-letako alkateak eta zinegotziak konbidau ditue ekitaldira, 100 udal horreei aitortzea egiteko. UEMAKo lehendakari Iraitz Lazkanoren berbe emongo deusie amaierara ekitaldian. Udalerri horreetan euskerearen inguruan lanean dabizen euskaltzaleei be bialdu jakie konbitea.

Ekitaldia 11:00etan hasiko da eta EITBk zuzenean eskainiko dau.

UEMAren historia

Udalerri Euskaldunen mobime-



asmoagaz. Onartutakoa beteteko, mozinoa onartu eben udal-letako batzuk alkartzen hasi ziran. Laguntza tekniko eta juridikoa EKBk (Euskal Kulturaren Batzarrea) eskaini eutsen, horretarako Birreuskalduntzearen Planifikaziorako Zerbitzua (BPZ) sortuz.

Hurrengo pausua Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea sortzea, eta estatutuak onartzea izan zan. 1991ko maiatzaren 5ean Aizarnazabalen Udalerri Euskaldunen Eguna antolatzea ebatzi eben, UEMA osatutako lehen 19 udal-letako hautetsiek egin eben UEMAn sorrerako batzarra. UEMA sortu eben 19 herrien artean, Dima egoan.

Hasikerako 19 udal horreek 97 dira gaur egun eta beste udal batzuek kide izateko eskaera egingo dabenez, 100 udal-letara helduko da UEMA martiaren 25ean, guztien artean 315.000 biztanleko lurruna osotuz.

UEMAk gaur egun hainbat ildo eta zerbitzu ditu, euskeraz bizi gura daberen udal-letaren beharrei erantzuteko, eta hori guztia herri herri bideratzeko, 15 lagunekin lantalde teknikoak dauka.

nentua 1988an sortu zan, Euskal Herriko Euskeraz Alkartea urte haretan udaletan aurkeztu eban mozino baten inguruan. Mozino harek herri euskaldunetako udal-letak euskera hutsean lan egitea proposatuten eban, eta Euskal Herriko 32 udal-letak onartu eben. Mozinoagaz batera, "Euskeraren Erabilpena Normaltzeko Udala Arautegia" onartu eben administrazioan eta udal-letaren euskeraz biziteko eskubidea bermatzeko eta bitartekoak ipinteko

UEMAK 100 euroko bonua emon dau Igorren

Erredakzioa

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskeraren Erakunde Publikoak euskerazko ulermenaren identifikatu eta aitortuko dauan Euskeraz barra-barra marka bate-ratua sortu eben igaz eta UEMAKo kide diran zazpi herritan izan ziran marka hori zabaltzen, bezeroen eta establezimientuen erantzuna aztertzeko. Aramaion, Atxondon, Bakion, Beran, Bermeon, Elizondon, Etxarri Aranatzen eta Igorren egin zan kanpaina.

Proiektu pilotuaren eragina ebaluetako, parte hartu eben establezimientuetan berezoak beteteko inkestak banatu zituan UEMAK. Gero, inkestak bete ebezan bezero guztien artean 100 euroko erosketa bonu bi zozketatu ebezan. Martia hasikeran zozketan sarituak

izandako Berako Xulufraia dendako eta Igorreko Politte dendako bezeroei banatu jakiezan sariok.

Establezimientuetan bezero euskaldunen mezuak ulertzea da Euskeraz barra-barra bereiz-

garia eskuratzeko gitxieneko baldintzea. Bezeroa hizkuntza aldatzera ez behartzea eta euskeraz egitea da markearen helburua. Martiatik aurrera Euskal Herria zabalduko da ekimena.



Leire Bernaola zozketako irabazlea eta Politte dendako Candy Peña.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Etxeetara produktuak heltzeako auzolanaren garrantzia azpimarratu eban Errigorak Igorren

Martiaren 2an, Arratiako Berbalagunek antolatuta, Errigora herri ekimeneko orio nafarrak dastatzeko aukerea egon zan Igorren. Nafarroaren hegoaldeko oliba orioa, konserbak, pastea, arroza eta lekaleak, auzolanari esker eskuratu daitezkeza herrietan, ekoizlearen etxean daukan prezio berean, azpimarratu eban Igorren, bertaratutako Errigorako Arronizeko orio ekoizleak.

Erredakzioa

Euskerea, elikadura burujabetea eta auzolana bultzatu guran, Nafarroako Erdialdeko eta Erriberako ekoizleak sortu zan Errigora. 2013an, bost baino ez ziran ekoizleak; 2013an barriz, 23. Aurten, Errigora Balioak identifikatzailea sortu dabe. Zigilu honek, produktuak proiektuaren balioak beteten dituala bermatzen dau. Bertakotasuna, euskerea, auzolana eta nekazariakazko harremana dira Errigoraren balio honeek.

Auzolanaren garrantzia

Auzolanari esker helduten dira produktuak Euskal Herriko herrietara ekoizlearen etxean daukan prezio berean, banatzaileak boluntarioak diralako. Eskerak *online* egiten dira. Arratian herri bakotzak arduradun bat dauka eta berak egiten ditu eskaera guztiak batera. Gero, kamioia Igorrera heldu eta auzolanean antolatzen da materiala eskaeren arabera herri eta gero, banaketea egiten da herri bakotxean.

Errigorak antolatzen dituan auzolanetan be parte hartu behar dau ekoizleak. Urtean zehar, hainbat kanpaina dira: otzarak osotu, bisitak eta berbaldiak egin... Aurten jarritako identifikatzaileak, produktua elaboratu dauan ekoizleak auzolanetan parte hartu dauala ziurtatzen dau.

Beste balioei jagokienean, identifikatzaileak bertokotasuna ziurtatzen dau; hau da, produktua "Ager" zonaldeko jatorrikoa dala. Euskereagazko konpromisoa be ziurtatzen dau; elaboratu dauan ekoiztetxeak euskerea normalizetako plana garatuten dagoala

bermatuz. Azkenik, produktuaren ekoizpenean erabilten dan osagai nagusia landu dauan nekazariakazko harremana bidezkoa izan dala be ziurtatzen dau identifikatzaileak.

Eskatu, jaso eta ordaindu

Arratian, herri bakotzeko arduradunaren bidez egin daitezke eskaerak edo Errigoraren webgunean (*errigora.eus*) martiaren 29ra arte. Aprilaren amaieran edo maiatzaren hasieran jasoko dira produktuak herrian. Modu bitan ordaindu daiteke, eskudirutan herriko arduradunari edo *online*.



LEMOA

Udalagaz behar egiten daben zerbitzuetako beharginen soldatak duinak izan daitezala bermatzen saiatuko da Lemoa

Erredakzioa

Lan baldintzen egoerearen analisia egin dau Lemoako Udalak eta Udalagaz behar egiten daben zerbitzu batzuen langileen eta Udaleko langileen arteko arrakala ikusita, zerbitzu guztietako langileei soldata duinak bermatzeko proposamena egingo dau.

Udalak hainbat zerbitzu emoten ditu bere baliabideakaz, baina beste batzuk kanpo enpresen bidez emoten ditu; kale edo eraikinen garbiketea eta lorezaintzea, esate baterako. Lehiaketa publikoaren bidez esleitzen dira zerbitzu horreek,

lehiaketa bakotxari jagokozan baldintzak zehaztuz. Hainbat klausula sozial txertatzen dira zerbitzuaren kalidadea bermatu eta langileen lan baldintzak hobetuteko. Baina enpreseari jagoko zehaztea lan baldintzak, soldatak eta abar, indarrean dagozan hitzarmenak kontuan hartuta. "Batzuetan Bizkaiko Lan Hitzarmenak dira, kasurik onenetan; beste batzuetan estadukoak eta beste batzuetan ez dira ikusi edo aztertu, ba, igual azken hogeit urteetan" azaldu deutso BEGITURI Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Egoerearen analisia egin eta lanke-terean ondorioz, Udalean ikusi dabe

hitzarmenaren arabera, langile batzuen eta besteen arteko lan baldintzetan alde nabarmena dagoala eta enpresa batzuek ez dabela soldata duina bermatzen. Lan baldintza duinak bermatzeko, Udalak zerbitzuak esleitzeko pleguetan, "Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan jotzen dan soldata minimoa jasoko dau. Kartaren arabera, soldata duina, 1.400 euroko 14 paga dira; guztira, 19.600 urtean. Gero, enpresek aplikauko deusie bakotxari indarrean dauan hitzarmena. Gu horretan ezin gara sartu, ez diralako gure langileak baina behintzat saiatuko gara soldata hori bermatzen" dino alkateak.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

UEMAk antolatutako udaleku ibiltarirako izen-emotea zabalik dago



Erredakzioa

Hilaren 31ra arte, udalerri euskaldunetako gazteek emon daikie izena *uema.eus* webgunean edo 943 81 66 99 telefono zenbakian Salto! udaleku ibiltarian parte hartzeako. Udalekua bagilearen 26tik garagarilaren 4ra arte izango da eta parte-hartzaileek Orozkotik Dimarako bidea egingo dabe.

Udalekuaren helburua, gazteak euskerearen inguruan sensibilizetea, konzientziatea eta eragile aktibo bihurtzea da. Aurreko urteetan izandako arrakastearen ondorioz, igaz parte-hartzaileen kopurua bikoiztu eban UEMAK, eta aurten, igazko izen-emotea kopuruak kontuan hartuta, aurrekoetan baino gazte gehiagorentzat

izango da lekua. Holan, 2005 eta 2008 urteen artean jaiotako 120 gaztek izango dabe udalekuan parte hartzeako aukerea.

Udalerri euskaldunetako gazteak

Euskerearen inguruan herritarrek konzientzietako eta sensibilizetako ekimenak dira UEMAREN ildo nagusietako bat atzen urteotan. Horren barruan, euskerearen arnaguneen buruzko hezkuntza proiektua dago. Ikastetxeetan, UEMAKO teknikariak lanean dagoz, Haur Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasle, irakasle eta gurasoakaz batera. Eta proiektua gehiago garatzeko, hezkuntza arautuaren mugak gainditu eta udalerri euskaldunetako gazteentzako topaketak eta udalekuak antolatuten ditu UEMAK, Eusko Jaurilaritzaren laguntzeagaz. "Euskeraz bizi diran gazteek inertzia konzientziarako saltoa emotea eta horregaz efektu biderkatzailea sortzea da helburua. Aisialdiagaz eta euskal kulturagaz lotutako egitarau erakargarriagaz, gazteak sensibilizatu eta ahalduz kolektiborako pausua emon gura da urteroko topaketa honekaz" dinoe UEMATIK.

IGORRE

Herritarrentzako desfibrilazino ikastaroa antolatu dau Udalak

Erredakzioa

Bizi euskarriari eta desfibrilazino erdiautomatikoari buruzko ikastaroa antolatu dau Udalak, debalde, herritarrentzat. Ikastaroaren helburua, osasun laguntzak heldu aurretik, bihotza gelditu jakon persona bateri, bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) egiteko teknika eta desfibriladore erabilten ikastea da. Igorren, kale eta leku publikoetan, 5 desfibriladore dagoz jentearen eskura behar izan ezker erabilteko. Lau orduko ikastaroa da, ordu biko saio bi: martiaren 20 eta 27an, 18:00etatik 20:00etara. Izen-emotea hilaren 15era arte zabalik dago.

Ikastaroak interes handia sortu dauala azaldu deutso BEGITURI Mikel Lopez de la Pinta Igorreko

Kultur eta Kirol teknikariak. "Udal langileok jaso genduan formazino hori eta gero, alkarteetara zabaldu zan egiteko aukerea. Oin, Igorreko jente guztiari zabaldu jako eta arrakasta handia dabil izaten izen-emotea". Izan be, ikastaro interesgarria izateaz gainera, bizitzak salbetako aukerak handitzen dira, jente asko gai bada BBB bat egin edo-eta desfibriladore erabilten.

Izen-emotea

Izena martiaren 15era arte emon daiteke Kultur Etxean, bulego ordutegian; hau da, 09:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:45era. Baita *kulturetxea@igorre.net* helbide elektronikora idatzita be, izen-abizenak eta hartu-emonetarako telefonoa zehaztuta.



AREATZA

Eskolan jostailuak batzean dabiz maiatzean bigarren eskuko merkadua egiteko



Erredakzioa

Areatzakako eskolako guraso alkar-tea, jostailuak, eskola eta kirol materiala, mozorroak eta abar batzean dabil, maiatzaren 26an, eskolako patioan, bigarren eskuko gauzak merkadu txiki bat antolatutako. Dohaintzak eskolako sarrerako estalpean itxi daitezke 09:30etik 09:45era. Merkadu egunean, umeentzako tailerrak, zozketea eta limonada be egongo dira eta batutako dirua guraso alkararentzat izango da.

Familiek etxean erabilten ez dabean gauzak, umeakaz erlazionautu dagozanak jasoten dira: "jostailuak, liburuak, eskolako materiala, kirola egiteko, mozorroak... horreek guztiak baztertuta baina ondo dagozanak, modu boluntarioan emondakoak, prezio sinbolikoan ipini eta egun horretan salgai ipiniko doguz" azaldu deutso BEGITURI Saioa Larrea guraso alkartekoak.

Jenteak emondako gauzak "batuten doguz eskolan eta gero eroaten doguz Udalak itxitako gela

batera. Han egiten doguna da sailkatu, begiratu ia ondo dagozan, normalean oso ondo egoten dira eta garbitu behar bada, apur bat garbitu" dino Larreak.

Guraso alkar-teak antolatutako bigarren merkadua izango da hau; pandemiaren aurretik egin zan bat eta aurten egingo da bigarrena. Orduan Gabonurrean egin zan eta ia 400 euro batu ebezan. Aurten, eguraldi ona izateko aukera gehiago egoteko, udabarrian egitea pentsatu dabe.

Ikas komunitatea eta berberabilpena bultzatuz

Merkadua antolatuten, beste eragileak alkarlanean dabil guraso alkar-tea. "Eskolea abisautu dago, Udala... Eskolea, herria eta ikas komunitatea martxan ipinteko. Gazteei be esan jakie eta prest dagoz egun horretan tailertxo batzuk egiteko". Izan be, merkaduan inguruan jaia ospatuko da, tailerrak, zozketea eta limonadeagaz.

Berrabilpena bultzatzeko helburua be badauka merkadu txikiak.

ARRATIA

M8aren inguruko programazinoko berbaldia, tailerra eta ikuskizunak egongo dira hamabostaldion

Erredakzioa

Martiaren 8aren inguruko programazinoak hile osoa hartzean dau eta bigarren hamabostaldi honetan gizarte egiturazko desbardintasunen gainean hausnartzeko aukera egoten segiduko dau. Hilaren 17an, 19:00etan, Arantzazuko Kultur Gunean Begoña Zabala abogaduak *Justizia eta feminismoa* berbaldia

egingo dau; hurrengo egunean, 12:30ean, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean *Meri, Mari eta Lari* umeentzako ikuskizuna egongo da; 22an, Zeanuriko Kultur Etxean 18:00etan, *Exijentzia ala eszelentzia* tailerra Ainoa Astiazarenen eskutik, eta 26an, 19:00etan, Arantzazuko Kultur Gunean, Bea Egizabalen *Magma mia* umorezko bakarriketea ikusteko aukera egongo dira.

ARTEA

Folk musikearen museoaren lanak hasita dagoz Artean

Erredakzioa

Folk musikea eta euskal tradizioak ardatz dituan Musiktopa izeneko museo egiteko lanak, zezeilaren amaieran esleitu ziran, eta martiaren 1ean, proiektua gauzatzeko dirua ipini daben erakundeek bisitatu ebezan obrak.

Ekomuseoa barrizatzeko proiektuak lau fase ditu eta lehenengo eta bigarren faseak dagoz martxan. Aurreko urtean sute handi batek erretako baserri zentrala izango da instalazinoetako erakusketa areto nagusia eta hori birgaituko da lehenengo fase bietan. Lanak urtearen amaieran amaitzea aurreikusten da.

Proiektua gauzatzeko, Udalak 70.000 euroko ekarpena egin dau; Bizkaiko Foru Aldundiak, 750.000 euroko laguntza emon dau, eta gainerakoa, 200.000 euro Gorbeialde LGEk kudeatzen dituan Europako funtsetatik atera da lehenengo fase biak finantzietako. Alberto Intxaurreaga Arteko alkatea, Ainara Basurko Sustapen Ekonomikoko diputadua, Elixabete Etxanobe Administrazio Publikoko eta Harreman Instituzio-

naletako diputadua eta Lorea Bilbao Ibarra Euskera, Kultura eta Kirol diputadua egon ziran obrak ikusten eta arkitektoaren azalpenak entzuten.

Egiten dabiz lehen fase bietan, baserri zentrala erakusketa areto nagusi bihurtuko da eta "esku hartze globala egingo da lurzatian, ingurunea eta bertako zuzak balioan ipiniko dituan paisaia barria eta erakargarria sortzeako, aire zabalean museo bat sortuta". Lan horren barruan, inguruko eta baserri nagusiko irisgarritasuna hobetutea be aurreikusten da.

Beste fase biak gauzatzeko 700.000 euro gehiago inbertiduko dira. Horren proiektua Europar Batasunaren Next Generation Funtsetan sartu gura da.

Musiktopa, zazpi espazio

Zazpi espaziotan bananduko da eskaintza museografikoa: soinu artearen instalazinoa daukan eskultura parkea, harrera eta zerbitzu gunea, kontzeptu zabaleko barruko erakusketa espazioa, baserriaren ohiko lanak gogora ekartzen daben pieza antropologikoak eta soinu eukiontzak hartuko

dituan beste bat, burdinolaren inguruko argi instalazino modura zuzatua, edukiera txiki musika emonaldiak edo hezkuntza tailerrak hartzeako eraikin osagarria eta Arratiako Musika Eskolari ikasketa eta entsegu lagungarriko gelak emoteko eraikin bat.

Museoaz gainera, jenteak erabilteko parkea, ikus-entzunezko obrak proiektetako lekua, musika emonaldiak, entzunaldiak edo hezkuntza tailerrak egiteko espazioak egongo dira. Leon eta Maurizio Soinutegian, Arratiako Musika Eskoleak gela osagarriak izango ditu, "bere hezkuntza programea babesteko eta indartzeko".



BEDIA

Egungo alkatea, Aitor Sorriketa, izango da EAJ-PNVren hautagaia maiatzeko udal hauteskundeetan

Erredakzioa

Aitor Sorriketa Larrea (Bedia, 1972) izango da EAJ-PNVk Bedia aurkeztuko dauan zerrendaburua. Berarentzat bosgarren aldia izango da. Bere esanetan, hasierako ilusino eta kemen berberagaz, baina esperientzia handiagaz aurkeztuko da oin.

"Hurrengo legealdira begira hautagai izan nintzan lehen aldi haretan nituan ilusino eta kemen berberak daukadaz oin. Gainera, oingoan aurkeztuko dogun hautagaitzak esperientzia handia dauka udal kudeaketan, eta hautagai gazteek, taldean barriak izango diranek, hurrengo legealdian aurkeztuko doguzan ekimenek beharko daben aire freskoa ekarriko deuskue", azaldu dau Sorriketak prensa-ohar baten.

Bediako herritarren bizi-kalitatea eta ondoizatea hobetuteko, proposamen batzuk ditu jeltzaleak, bere taldeagaz aurrera

aterateko. "Nabarmendu gurako geunke Hiri Antolamendurako Plan Orokorra amaitzea (HAPO); andren artean saregintzan jarraituko dogu eta III. Berdintasun Plana egingo dogu; baita gure nagusien zainketea be, etxek etxeko zerbitzuagaz; Euskararen Erabilerarako IV. Plana idazten amaituko dogu, beste proiektu batzuk baztertu barik, honeen artean Zinbeko instalazinoen eraisketa; tren zerbitzuagaz mobikortasuna hobetutea...".

Oin arte egindakoen artean Energiaren Eraginkortasunerako Planaren VII. eta VIII. faseak; Jaurgi auzoaren urbanizazinoa; tren geralekura irisgarritasuna hobetuteko lanak; Ereñon ur hornikuntza hobetuteko lanak eta III. Berdintasun Planaren onarpena nabarmendu gura izan ditu.

Egungo alkateak eskertu deutse egindako lana "gubernu lanetan taldekide" izan dituan zinegotziei eta udal teknikariei.

Aitor Sorriketa

Aitor Sorriketa Bedia bizi da. 2003tik administrari lanak egiten ditu Bediako Udalan eta ordutik aurrera alkatetza buztartzen dau lanagaz. 2007tik 2011ra Arratiako Udalen Mankomunitateko presidente izan zan. Mendizale sutsua da eta Galdakaoko Ganguren mendi taldeko kidea eta Zuzendaritza Taldeko kidea be izan da.



IGORREKO BARDINTASUN DIAGNOSTIKOA

Gizon eta andren arteko errenta arrakala %37koa da Igorren

Daiteke Gizarte Aholkularitzak egindako Igorreko Emakume eta Gizonen Berdintasun Egoeraren Diagnostikoa dokumentuan agertzen da datua. Azterketa honen arabera, Igorren andrek, gizonek baino 9.262 euro gitxiago irabazten dabe urtean.

Guztizko errenta eta soldata arrakala herrika sexuaren arabera 2020

	Guztira	Andrak	Gizonak	Arrakala
Arantzazu	23.587	19.113	27.843	36,6
Areatza	19.948	16.499	23.828	30,7
Artea	24.472	22.076	26.821	17,6
Bedia	20.844	15.995	25.923	38,2
Dima	24.319	20.748	27.815	25,4
Igorre	20.266	15.738	25.000	37,04
Lemoa	21.062	15.573	26.616	41,4
Ubide	19.240	16.333	21.525	24,12
Zeanuri	24.831	20.215	29.622	31,7

Iturria: Igorreko Emakume eta Gizonen Berdintasun Egoeraren Diagnostikoa.

Erredakzioa

Arratiako herrien artean, hirugarrena da arrakala handiena daukien herrien artean, Lemoakoaren (%41,4) eta Bediakoaren (38,2) azpitik. Diagnostikoa, Igorreko andren egoera ekonomikoa ez dala ona erakusten dau eta gizon eta andren arteko aukera berdintasuna lortzeako, asko dagoala egiteko.

Igorre, Arratia, Bizkaia eta EAEko datuak alderatzen ditue txosten egileek. Gainontzeko erremuetako batz besteko errentak baino txikiagoa da Igorreko andren batz besteko errentea; hau da, Arratia, Bizkaia eta EAEgaz alderatuta, Igorreko andrek ditue batz besteko errentarik bajua, eta soldata arrakalarik handiena. Orokorrean, Igorren batz besteko errentea, 20.266 euro da; Arratian, 21.190 euro; Bizkaian 21.853 euro eta EAEn 22.343 euro. Gainera, gizon eta andren artean aldea handia da: Igorreko andren errentea 15.738 eurokoa da; gizonena barriz, 25.060 eurokoa.

Soldata arrakala handi honek, zaurgarriago egiten ditu andrak pobrezia aurrean, pobretze arriskua handituz eta lan merkaduko diskriminazioa eta desberdintasunak islatzen ditu.

Okupazioa eta langabezia

Diagnostikoa arabera, andren okupazio taseari jagokonean, Arratiakoa (%47,79), Bizkaia (%45,12) eta EAEkoa (%46,27) baino altuagoa da. Igorrekoa (%45,95), Arratiakoa eta EAEkoa baino bajua. Andrazkoen okupazio tasa txikiagoa da gizonena baino eta Igorreko gizon eta andren arteko okupazio tasen ar-

tean 6,68 puntutako aldea dago.

Atzenengo hamar urteetako datuak kontuan hartuta, "ikusi daiteke okupazio tasearen datu orokorre (andra edo gizon bereiztu barik) ez dabela aldaketa nabaririk izan; 2011n, %49,62ko okupazio tasea egoan Igorren eta 2021ean barriz %49,21ekoa zan. Ha-ta guzti be, andrak gizonen okupazio tasaren azpitik egon dira eta joera hori atzen hamar urteetan mantentidu da. Dana dala, andren progresino tasak gora egin dau. 2011. urtean %42,76ko okupazio tasea eukien eta 2021ean, %45,95. Beraz, 3,19 puntuko igoera egon da. Gizonen kasuan aldiz, atzen hamar urteetan okupazio taseak behera egin dau 2011n %56,94koa zan eta 2021ekoa %52,64koa.

Langabezia tasaren kasuan, diagnostikoa aztertutako datuen artean, Bizkaiko (%12,4) zenbatekoa da altuena eta Arratiakoa bajua (%10,8) eta Igorrekoa %11,2koa da. Andra eta gizonen langabezia tasen artean, alderik handiena Igorren dago, 2,6 puntutako aldeagaz.

Igorreko andren langabezia tasa aztertutako lurralde eremuen artean altuenetarikoa da (%12,5). Gizonena ostera bajua (%9,9). Andra gehiago dagoz langabezia egoeran dagozan personeren artean (%56) eta 25-44 urte tartean, andren proportzioa nabarmen altuagoa da.

Jatorriari jagokonez Estatu edo EAEn jaiotakoan proportzioa altuagoa da (%71). Atzeritar jatorriko langabezia dagozan personeren artean gehiengo andrak dira (%67).

Langabezia tasa altuagoa eta lan baldintza kaskarragoak di-

tue andrazkoek. Esate baterako, 2022an (urri bigarretetik abendura) igorreztarrek sinatutako kontratuen artean, 150 kontratu, gehiengo gizonek sinatu eben (%54). Kontratu motari erreparata, gizonek sinatu dabez kontratu mugagabe gehienak, %69; andrek barriz, %31. Aldi baterako kontratuei jagokienean, andrek %55a sinatu eben, eta gizonek %45a.

Andren progresino tasak

gora egin dau. 2011. urtean

%42,76ko okupazio

tasea eukien eta 2021ean,

%45,95. Beraz, 3,19

puntuko igoera egon da

Lan segregazioa

Osotutako kontratuetan, merkataritza (%66), ostalaritza (%75), administrazioa (%54) edo hezkuntza eta osasuna lango lan esparruetan gehienak andrazkoak dira. Gizonak barriz gehiengo dira manufaktura (%72) bideratutako lan esparruetan. "Orokorrean zerbitzuen sektorean aurkitu daitezke soldata arrakalarik altuenak eta lan egonkortasun txikiak.



Laburbira

•••••

Euskarazko film laburren XX.zirkuitoa - 2023
Martxoaren 6tik apirilaren 5era
www.topagunea.eus/laburbira



OLATUEN ISILTASUNA
Maria Bartolome, Erik Campos, Fernando Martin



MUSKIL
Marina Perosanz



KOADRO GORIARI HELDU
Iulen Arana



IRRITS
Maider Oleaga



ASKO FALTA DA?
Ane Cuesta



ERLOJUPEKOA
Leire Egaña



HITZAK
Josu Martinez

TOKIA: Igorreko Lasarte Aretoa

EGUNA: Martiak 18, zapatua

ORDUA: 20:00

ANTOLATZAILEA: Zertu KE eta Igorreko Udala

Antolatzailea



Babesleak









Laguntzailea





Beste alde batetik, industriaren pisua nabaria da herrian eta sektore honetan gizonen kontzentrazioa andrena baino nabari altuagoa da. Dana dala, aitagarria da Igorren ageri diran industria establezimintuen tamainua (langile kopuruari erreparazuz) gainontzeko lurralde eremuetan baino handiago dala eta, orokorrean enpresa handiagoek baliabide gehiago izaten dituela enpresan genero ikuspegia txertatzeko" irakurri daiteke diagnostikoan.

Kontratautako personaren edadeari begiratu ezker, 25 urte baino gutxiagoa gizonen artean parekidetasuna dago, baina gaintzeko adin tartean kontratazioak gehiago dira gizonen artean, batez be 25-34 eta 35-44 urte tartean. Edade tarte horretan, kontratautako andren zenbatekoa %31 eta %44koa da hurrengo hurrengo.

Lanaldiari jagokonez, kontratu gehienak lanaldi osorako izan ziran (%78). Ha-ta guzti be, lanaldi partzialen artean andren (%77) zenbatekoa gizonena baino altuagoa dala ikusi daiteke, lanaldi osokoak barriz, gizonen sinatu dabez gehienak (%66).

Datuok agerian ixten dabe, andrek lan merkaduan, prekarietate eta lan egonkortasun txikiagoko baldintzak izaten dituela, eta andrek dituela aldi baterako kontratu eta jardunaldi erdiaren kopururik altuenak. Egindako kontratazioetan gainera, sexu, jatorri eta edadearen arabera arakala agerikoa da.

Beraz, soldata arakala, hainbat errazoi konplejuren ondorioa da eta arakala hori ezabatu edo murrizteko diagnostikoak Estibaliz Garcia Canoren *La brecha salarial en la Comunidad Autónoma de Euskadi (2021)* txosteneko aipua dakar: "hainbat mailatako ikuspegia behar da, eta honako honeen gainean jardun behar da: zuzene-

neko diskriminazioa; lanbideak baloretako erispideak; merkaduko desbardintasunak eta genero-estereotipoak, batez be konziliazioari eta erantzukidetasunari jagokienean, eta sinemenetatik eta diskriminazio faktoreetatik sortzean dan enpresa kultura".

Beste esparru batzuk

Enpleguaren egoereaz gainera, Igorreko Emakume eta Gizonen Berdintasun Egoeraren Diagnostikoak, beste eremuetako bardintasun errealitatea be aztertzen dau: kultura, kirola, urigintza, indarkeria matxistea eta hezkuntzako errealitatea, besteak beste. Eremu horretan be nabaria da parekidetasunik eza. Atal bako txaren ostean, ondorio nagusiak eta identifikatutako aukerak eta beharizanak agertzen dira. Izan be, diagnostiko hau izango da abiapuntua Igorreko hurrengo bardintasun plana egiteko.

Proposamen batzuk be atera daitezke dokumentutik. "Igorreko Udalak ez dauka indarkeria matxistearen aurrean erantzun publikoa emoteko protokolorik. Era berean, Udal mailan biktimen kalteen konponketarako inizatiba gehiago garatzearen beharra nabarmendu da" esate baterako.

Igorreko I. Berdintasunerako Plana 2011n egin zan, aurrez egindako diagnostiko baten oinarrituta. Bertan ondorengo esku-hartze ardatzak zehaztu ziran: Neurri Orokorrak; Kultura, Euskara eta Kirola; Hezkuntza; Lana; Gizarteratzea eta Hirigintza. Guztira 28 helburu orokor, 35 helburu zehatz eta 144 ekintza proposatu ziran, baina "alkarizketetan adierazo bezala, ez da planaren jarraipenik egin behintzat atzenengo urteetan, eta inplikautako eragile askok ez eben ezetuten. Plana beraz, ez da Udal bardintasun politiken garapenean oinarri izan".

SAN JOSETAKO BERTSO SAIOA

Igorreko kultur etxean
martiak 19, domekea
arrastiko 18:00etan

MAIALEN LUJANBIO	SUSTRAI COLINA	SAIOA ALKAIZA	UNAI ITURRIAGA
			



Igorreko Kultur Etxea
Luzerrio Artea



IGORREko
Udala



AREATZAKO BARDINTASUN PLANA

Areatzako III. Bardintasun Plana aurkeztu da

Martiaren 2an aurkeztu zan jente-aurrean Areatzako III. Bardintasun Plana. Planaren indarraldia 2023tik 2026ra izango da eta Udalak plenoan onartutakoan ipiniko da martxan.

Erredakzioa

Urte bakotxerako jarduerak zehazten dira bertan. Errotik kooperatiba feministeak egin dau plana eta herrian sexu aniztasuna kontuan hartzean dabezan ekintzak antolatzea, eta indarkeria matxistaren biktimen erreparazio eskubidea txertatzea AUMko protokoloan moduko neurriak dakar dokumentuak.

Emakundek eskatzen dauan lau ardatzetan egituratuta dago Bardintasun Plana; gobernu ona, ekonomia eta gizarte antolamendua eraldatzea, andra eta nesken jabeak feminista, eta indarkeria matxista bako herriaren inguruko ardatzak. Ardatz bakotxaren helburu estrategikoak aitatzen dira gero, eta helburu operatiboak eta urte bakotxeko jarduerak be zehazten dira.

Gobernu onari jagokonean, helburu estrategikoen artean, koordinazio egiturak eta talde eragileak sortzea eta udal langileen formakuntza dagoz, besteak beste. Ekintzen artean lehentasunezkoak jotzen dira esturturea emotea bardintasun batzorde politikoari zein zinegotziak eta bardintasun teknikariak osotutako bardintasun taldeari. Udal langileen formakuntza bermatutako, formakuntza plan bat sortu behar dala eta jarraipena emon behar jakola, eta formakuntza hori lan orduetan eta derrigorrezkoa izan behar dala adierazoten da.

Arlo guztietan, bardintasunaren alde egiteko, Udala eta beste eragileen artean espazio egonkorra egon behar da; hezkuntzan, osasun arloan eta gazterian, esate baterako. Holan, hezkuntzan, hezikidetzea eta indarkeria matxistaren prebenzio lanari jarraipena emon gura jako; osasun arloan, farmaziak, erizainak eta abar indarkeria matxista detektetako eragile garrantzitsuzat jotzen dira, baita sortzean diran egoerei erantzuna emoteko be, eta gazterian jagokonean, gazteei zuzendutako ekintzetan sexu aniztasuna kontuan hartzea eskatzen dau Planak. Planaren arabera, Udaleko bardintasun politikea indartuko daben parte hartzeako guneak bultzatzeko, lankidetzea sustatu behar da herriko eragile eta alkarkez eta Arratiako Udalen Mankomunitateko beste herriakaz. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dabezan foro tekniko

eta politikoetan parte hartzea komenidu da.

Ekonomia eta gizarte feministea

Ekonomia eta gizarte antolamendua eraldatzeko, Ekonomia feministearen planteamentuetan oinarritzen da Bardintasun Plana. Holan, Ekonomia feministea, -bizitzak, ez kapitala, erdigunean jartzen dauana- da helburu estrategikoetako bat. Udaleko lanpostuen analisisa eta konziliario preminen diagnostikoa be estrategikotzat jotzen dira.

Areatzako zaintza sistemaren diagnostia egitea be aurreikusten dau Planak. "Nork zaintzen dau Areatzan?" izango litzateke abiapuntuko itauna. Diagnostikoaren ondorioetatik adostuko dira neurriak. Hau 2025erako dago programata.

Eskubideak eukiteko eskubidearen jakitun izatean oinarritzen da andra eta nesken jabeak feminista. Helburu estrategikoen artean, jabeak bera, parte hartze soziopolitiko eta LGBTBI+ jabeakentzarako espazioa aurreikusten dira. Izan be, sexu-aniztasunaren ikuspuntua txertatu gura dau III. Planak. Helburu horregaz, ekintzen artean, LGBTBI+ personen jabeakentza feministarako tailer bat eskainiko da.

Lugarren ardatza, mundu mailan gaur egungo feminismoak batzean dituan helburua da: indarkeria matxisteagaz amaitutea, hain zuzen be. Horretarako sei helburu estrategiko batzean dira eta hainbat ekintza. AUMeko koordinazio protokoloan, indarkeria matxisten biktimen erreparazio eskubidea txertatzea; koordinazio mahaia barriro martxan ipintea eta indarkeria matxisteari aurre egiteko arloko lanak aurrera eroteko teknikari baten kontratazioa aztertzea eskatzen da, protokolo hau eragingarriagoa izan daiten. Gainera, Areatzako andrei dagozan baliabideak ezetuten emon behar jakie eta indarkeria matxistaren aurkako herriko paktua egin, gizoni zuzendutako mezuak landuz.

Udal barruan, sexu jazarpena eta jazarpen sexista prebenidutako, detektetako eta artatzeko protokoloa behar da.

Paperean geratu ez daiten

Plana bete daiten, betetze maila neurtutako ebaluazio neurriak dakar. Neurri horreen artean, ur-

teko memoria dago, urte horretan egindakoa ebaluauko dauana, eta amaieran, 2027an, III. Planaren ebaluazioa. Horreetan betetze maila neurtuko da eta parte-hartzeari jarraipena egingo jako. Planaren inpaktua be neurtuko da eta ondorioetatik abiatuko da hurrengo Bardintasun Plana.

Betetze maila eta planaren benetako inpaktua izan zan, aurkezpena hurreratu ziran Areatzako andra batzuen kezka. Izan be, bardintasun planen jarraipena eta betetze maila eskasa izaten da, bardintasunean inpaktu txikia

itxiz. "Oso polito dago paperean, paperak dana aguantetan dau. Baina, Areatza baten hori dana egiterik egongo da? Dirua behar

da eta nik daukat inpresinoa diru guztia planak eta diagnostikoak egiten joaten dala" azaldu eban bere kezka herritar batek.





Laburbira

Euskarazko film laburren XX.zirkuitoa - 2023
Martxoaren 6tik apirilaren 5era
www.topagunea.eus/laburbira





OLATUEN ISILTASUNA
María Bartolome, Erik Campos, Fernando Martin



MUSKIL
Marina Perosanz



KOADRO GORIARI HELDU
Iulen Arana



IRRITS
Maider Oleaga



ASKO FALTA DA?
Ane Cuesta



ERLOJUPEKOA
Leire Egaña



HITZAK
Josu Martinez

TOKIA: Areatzako udaletxea

EGUNA: Martiak 31, barikua

ORDUA: 19:30

ANTOLATZAILEA: Zertu KE eta Areatzako Udala



















ura URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Euskadiko Itun Berdea | EUSKADIKO ITUN BERDEA | EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin izar, 2012ko Munduko Emakume Chef Onena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

EZ DAGO URA BAINO INDARTSUAGORIK

www.indartsuagoak.eus



ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!

begitu.eus

-  1.090 JARRAITZAILE
-  352 JARRAITZAILE
-  2.362 LAGUN

MENDIA

Gorbeia Suzien Skyrace lasterketarako izena emon daiteke daborduko

Martiaren 26ra arte emon daiteke izena gorbeiasuzien.eus helbidean Gorbeia Suzien Skyrace 32 km-ko lasterketarako.

Erredakzioa

21 kilometroko lasterketarako izen-emotea oster, apirilaren 3an hasiko da.

Urri lehenengoaren 23an jokatu da Zeanuri eta Gorbeia artean X. Gorbeia Suzien mendi lasterketea eta daborduko, zabalik dago lasterketa nagusirako izen-emotea. Skyrace-ak 32 kilometro eta 2.400 metroko desnibel positiboa izango dau eta Skyrunner World Series ligarako puntuagarria da.

Martiaren 31n egingo da, zozketa

bitartez, 500 dorsalen banaketea eta itxaron zerrenda be osotuko dabe. Antolatzaileek, 100 dorsal gordeko ditue edizino guztietan parte-hartu daben korrikalariarentzat, aurreko urteko onentzat, zeanurizarrentzat, gitxieneko andra kopuru bat dagoala ziurtatzeko, eliteko korrikalariarentzat eta babesleentzat.

Skyrunner World Series zirkuitua apirilaren 29an hasiko da Calamorro Skyrace lasterketeagaz, eta Frantzia, Austria, Espainia, Portugal, Kanada, Peru, Suitza, Italia eta Euskal Herria igaroko dabezan 13 proba hartuko ditu bere baitan.



ERRUGBIA

Laugarren postuan dagoz Arratiko Zekorrak

Erredakzioa

La Unica taldearen kontra irabazi eban Arratiko Zekorrak-ek hilaren 4an Igorren jokatuako partiduan.

Ekin eraikuntzak Arratiko Zekorrak taldea San Txismen lehiatuzan martiko lehen astegoienean Iruñeako La Unica B taldearen kontra eta arratiarrek estu bada be 25-24 irabazi egin eben. La Unica B sailkapeneko atzen pos-

tuan dago baina Ekaitz Duñabertia entrenatzaileak azaldu eban, lehen taldeko jokalaria bezala jokatu ebela eta arratiarrek jokalaria garrantzitsuak gaixo izan ebazenez, bardinduta egon zala lehia. Oin, ligea amaituteko partidu bi faltan, laugarren postura bueltatu dira arratiarrek. Datorren partidua hilaren 18an jokatu dabe barriro San Txismen, Nerbioi-UBRren kontra, arrastiko 16:30ean.



FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia Ak lidertzan segiduten dau

Martiko bigarren astegoieneko emaitzak onak izan dira orokorrean arratiarrentzat, danek irabazi dabez euren partiduak gizonezkoen Arratia Bk izan ezik, atzen honek bina bardindu eban etxean.

Erredakzioa**Gizonezkoen Arratia A**

Gizonezkoen Arratia A taldeak martiaren 11ko arrastian jokatu eban Urbietan Etxebarri A taldearen kontra eta 2-0 irabazi eban Igorreko taldeak. 24 jardunaldiren ostean Arratia A lidertzan dago 51 puntugaz. Datorren partidua hilaren 18an jokatu dau etxetik kanpo Sondika A taldearen kontra, arrastiko 17:00etan.

Andrazkoen Arratia A

Domeka eguerdian jokatu eban andrazkoen Arratia A taldeak Pradejon taldearen kontra Urbietan eta 3-0 irabazi eban. Atzen partidu biak irabazi ditue barrez. 22 jardunaldiren ostean Arratia hamargarren postuan dago 25 puntugaz. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau DUX Logroño B taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 16:30ean.

Gizonezkoen Arratia B

Hilaren 11n be, A taldearen ostean gizonezkoen Arratia B taldeak jokatu eban iluntzean Urbietan Orozkoko Atxulaur A taldearen kontra eta bina bardindu eban. 24 jardunaldiren ostean Arratia B bederatzigarren postuan dago 33 puntugaz. Datorren partidua hilaren 18an jokatu dau etxetik kanpo Loiu A taldearen kontra, arrastiko 16:15ean.

Andrazkoen Arratia B

Martiaren 12 arrastian jokatu eban andrazkoen Arratia B taldeak Elorrio B taldearen kontra Urbietan eta 1-0 irabazi eban. 22 jardunaldiren ostean Arratia B bosgarren postuan dago 34 puntugaz. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Basauriko Kimuak B taldearen kontra hilaren 19an, 17:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik martiaren 11ko arrastian jokatu eban Arlo-nagusian Loiu A taldearen kontra eta 2-0 irabazi eban. 24 jardunaldiren ostean zazpigarren postuan dago Lemoako taldea 39 puntugaz. Datorren partidua hilaren 18an jokatu dau etxetik kanpo Gernika Sporting A talde liderraren kontra, arrastiko 16:00etan.

Arratiak kanpusa apirlean

Arratiak Aste Santu aurrerako, apirilak 3, 4 eta 5, futbol kanpusa antolatu dau 2011 eta 2018 artean jaiotako -biak barne- ume eta gazteentzat. Kanpusa goizeko 09:30etik 14:00etara izango da, eta jolasak, urtekerak eta abar egongo dira; izena emoten dabenek 60 euro ordaindu beharko dabez. Izena cdarratia@cdarratia.com eta 688 777 117 eta 94 631 57 04 telefonoetan emon daiteke eta horretarako atzen eguna martiaren 24a izango da.



Gizonezkoen Arratia A eta Etxebarri Aren arteko partiduko irudia.

649 979 115

inigoirua@begitu.eus

IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN



PELOTEA

Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketako finala jokatu dau Aldaik

Martiaren 11n jokatu zan Laudion Emakume Master Cupen zirkuituko binakako atzen finalerdia.

Erredakzioa

Amaia Aldaik eta Nora Mendizabalek osotutako bikotea urten zan garaile, 22-18, Miren Larrarte eta Miriam Arrillagaren kontra. Holan, Aldai eta Mendizabalek aurrez aurre izango dabez Olatz Arrizabalaga eta Uxue Osés martiaren 26an Zarautzen jokatu dan finalean.

Espero eban moduan, finalerdia "oso gogorra" izan zan Aldairentzako. Galtzean hasi ziran bizkaitar biak baina hamaikagarren tantuan hartu eben aurrea eta konfidantzea irabazten hasi ziran. "Mendizabalek betiko lez partidu ona egin eban, pelota gitxi galdu eta atzekaldean dominatzen;

horrek lagundu eustan niri aurrean tantuak irabazteko orduan" azaldu dau Aldaik.

Euskal Ligako txapeldun

Martiaren 8an Azkoitian jokatu zan klubaren arteko Euskal Ligako finala

eta "espero zana baino partidu gogorragoa" jokatu ostean Amaia Aldaik eta Enara Gamindek jantzi eben txapela. Miren Larrarte eta Itxaso Erasunen kontra lortu eben garaipena. 22-15 markagailuagaz amaitu zan partidua.



MENDIA

BBK Mendi Film Igorreko Kultur Etxean

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Igorren ikusi ahal izango dira BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia zinemaldiaren 2022ko pelikularik onenak, Mendi Tour zine ziklo ibiltariaren barruan. Aurten 7 film aukeratu ditue eta martiaren 23an eta 24an, 19:30ean, egongo dira ikusgai Lasarte Aretoan.

Erredakzioa

Janire Etxabek zuzendutako *Iretargi* filmak zabalduko dau aurtengo Mendi Tour Igorren eta *Agur Artzai*, *Egoland*, *Not Alone*, *This is Beth*, *New Way Up* eta *De l'ombre a la lumière* filmek osotuten dabe kartela.

Egungo saioa, martiak 23, *Iretargi*, *Agur Artzai*, *Egoland* eta *Not Alone* filmek osotuko dabe. *Iretargi* 3 minutuko pelikulan, Janire Etxabek jantzi bertikala eta eskaladea buztartzen ditu. 2022ko zezeileko ilbetea Etxaurin, "lamina batek jantzi egiten dau, eskegita, iretargia laztanduz". Philippe Eizagirre, Yhabril eta Janire Etxaberen sekuentzia artistikoa da filma.

Julen Zubieteren 27 minutuko filma da *Agur Artzai*. Azkenetan dagoan bizimodu bat erretratetako, Julen, Gorbeian geratzen diran azken artzainetako batengana hurreratuko da, Joserengana. Alkarregaz konpartiduko daben denporan iraganerako atek zabalik geratuko dira atzean itxitakoari

erreparatutako. Euskerazko film onenari eta Gazte sariak izan eban Bilboko jaialdian.

Ignasi Lopezek zuzendutako 19 minutuko filma da *Egoland*. "The Great Troll mendia gailurrera iristear dagoz Marek Molek eta Bruno Grassi, artean inork eskalau bako mendia, guztietan gaxena. Baina, ekaitz erauntsi betean, indarrak amaituta, eta edur baldintza eskasakaz, gailurrera heldu ezinik geratuko dira, helburua bertatik bertara euki arren. Eztabaida biztuko da bien artean: egia kontatu ala ez. Bitartean, albistea lantzean dagoan Mike Bacon korresponsala eurek kontaktatu ezinik dabil, eta Kanpaleku Nagusian zain dago barriak noz jasoko" azalduten dau sinopsiak. Film honek Iksusleen Saria eta Epaimahaiaren Aipamen Berezia jaso eban.

Lehenengo saioa amaitutako, Heather Moser kanadiarraren *Not Alone* 43 minutuko pelikulea egongo da. Laguna mendian hiltzearen ondoko traumearren gainekoa da pelikula hau. Edur-jausi batek bere

lagunik onena hil eban izotzetan eskaletan egoala, eta gertaera harek txiki-txiki eginda itxi eban Sarah Hueniken atleta profesional eta mendi gidari ezaguna. Mendietan daukan bizitzagaz barri bat egiteko, erronka handi bat hartuko dau: British Columbiako eremu baten neguko eskaladako hiru bide gogor egun berean egitea. Baina, holangoak lagungarri izan arren, mendiko trauma gainditzea haragoko prozesua da. Filmak Gidoi onenaren Saria jaso eban.

Barikuan beste hiru film

This is Beth da barikuko saioan ikusi ahal izango dan lehenengo pelikulea. Beth Rodden historiako eskalatzailerik emonkorrenetako bat da eta bere historia dakar filmak. El Capitanen igoera asko egin ditu, eta punta-puntako lehen igoera ugari be baditu. Jen Randallek zuzendutako 18 minutuko film honek, Epaimahaiaren Saria jaso eban

Jake Hollandek zuzendu eban *New Way Up* 25 minutuko filma.

MENDIA

Hilaren 18an, zapatua, izango da Kolazino Mendi Eguna Bedian

Seirehun kirolari inguruk emon dabe izena Kolazino Mendi Eguneko 7. edizinoan parte hartzeako. Mendi lasterketa bi jokatu dira eta mendi martxea be egingo da. Ostean, parte-hartzaile eta laguntzako bazkaria egongo da herriko frontoian.

Erredakzioa

Martxalariak izango dira lehenengoak urteten, goizeko 08:30ean, 16 kilometro eta 900 metro desnibel daukan ibilbidea egiteko. Ostean, lasterketa nagusiko partaideen txandea izango da. 10:00etan urtengo dira 24 kilometroko lasterketan parte hartuko dabena.

Lasterketa hau, Euskal Mendizale Federazioko Koparako puntuagarria da, eta bertan hartuko dabe parte mendi lasterketarik onenak; Oihana Azkorbebeitia, Asier Larruzeta eta Beñat Katarain, tartean. Azkenik, 16 kilometroko lasterketako partaideak 11:30ean abiatuko dira.

Herrian, eta batez be plazan, jai giroa izango da nagusi.

Mendi Tour
Lo mejor del Mendi Filmeko onena

MENDI AMESGARRIAK IGORRE

Martxo 23 Osteleguna 19:30	Iretargi 2022ko MF-ko Saria Olinpiar Saria / Saria Saria Mendi Pelikularik Onenak / Premio del Jurado MF 2022 ● 3' VO - sin diálogos / musa	Martxo 24 Osteleguna 19:30	This is Beth 2022ko MF-ko Espaimahaiaren Saria / Premio del Jurado MF 2022 ● 18' VO - sin diálogos / musa
	Agur Artzai 2022ko MF-ko Espaimahaiaren Saria / Saria Saria Mendi Pelikularik Onenak / Premio del Jurado MF 2022 ● 27' VO - sin diálogos / musa		New Way Up 2022ko MF-ko Espaimahaiaren Saria / Premio del Jurado MF 2022 ● 25' VO - sin diálogos / musa
	Egoland 2022ko MF-ko Espaimahaiaren Saria / Saria Saria Mendi Pelikularik Onenak / Premio del Jurado MF 2022 ● 19' VO - sin diálogos / musa		D L' ombre à la Lumière 2022ko MF-ko Espaimahaiaren Saria / Premio del Jurado MF 2022 ● 91' VO - sin diálogos / musa
	Not Alone 2022ko MF-ko Espaimahaiaren Saria / Saria Saria Mendi Pelikularik Onenak / Premio del Jurado MF 2022 ● 43' VO - sin diálogos / musa		

IGORREKO KULTUR ETXEA - LASARTE ARETOA, Elexalde 8 SARRERA DOAN / ENTRADA GRATUITA
Arauk 30 minutu lehenago zabalduko dira / Las posturas se abren 30 minutos antes

Pelikula honetan, Himalaiako eskaladan norabide barri bat ezarri dauan bidaia epikoa kontetan da. Gulmit Tower (Karakorum) granitozko pinakulua da eta oinarria ailegetako arriskuz betetako glaziar eremu bat kurutzatu beharra dago. Horrek espedizinoak atzera botaten ditu, baina Fabi Buhl-ek eta Will Sim-ek, idea barri bat euki eben: parapentean hurreratzea. Amaitzeko, Sebastien eta Da-

vina Montaz-Roset zuzendari frantziarren *De l'ombre a la lumière* ordubeteko filmak, Charles Dubouloz alpinista frantziarrak Grandes Jorasses-en (Chamonix, Frantzia) ipar isurialdeko "Rolling Stones" bidea (5.10 A3, edo M8, 1.100 m) neguan eta bakarrik, egin ebaneko kontakizuna dakar. Zuzendari onenari Saria jaso eban film honek 2022ko Mendi Film Bilbao-Bizkaia jaialdian.

ANTZEZLANA

Ez naiz inoiz Dublinen egon
komedia garrantza Igorreko
Lasarte Aretoan

Martiaren 25ean, 20:00etan egongo da besteen bizipen eta sinismenen onarpenari buruzko Tentazioa Produzioak-en *Ez naiz inoiz Dublinen egon* lana ikusteko aukerea.

Erredakzioa

Markos Goikoleak idatzitako obra honetan, Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean, Iñigo Aranburuk, Iñigo Azpitartek, Mireia Gabilondok berak eta Aitziber Garmendiak egiten dabez aktore lanak.

Sinopsia

Amesti familia Eguberri gaua ospatzeko bildu da, baina aurten goa berezia da. Elena, hiru urtez ikusi ez daben alaba gaztea, Londresetik itzuli da azkenean. Baina ez dator bakarrik, Cindygaz dator, bere neska-lagun irlan-

darragaz. Danak dagoz desietan irlandarra ezetuteko, baina inok ez dau espero Cindy personai ikusezin bat izatea, familia honen oreka hankaz gora ipiniko dauan Elenaren fantasia bat. Atetik sartzean dan momentuan, persona bitxi hau onartu ala ez ebatzi beharko dabe.

Gau zoro honetan zehar bako txak bere fantasia eta miseriak erakutsiko ditu, hemen ez da-ta inor libratzen. Eta alkar onartze-ko zailtasunak izan arren, danak gauza bardinaren bila dabizala ikusiko dogu; biziten lagunduko deuten ilusino baten bila.



MUSIKEA

Txalainak taldeak Arantzazuko Herriko Tabernan joko dau

Erredakzioa

Arantzazuko Kultur Batzordeak antolatuta, martiaren 24an, 21:00etan, Euskal Rock Erradikalean egoan Hertzainak taldearen moldaketa akustikoak egiten dituan Txalainak taldeak, Arantzazuko Herriko tabernan joko dau.

1981 eta 1993 bitarteko Hertzainak taldea, Euskal Rock Erradikala eta Euskadi Tropikala mobimentuetan egon zan. Euskal rock-aren historian ezinbestekoa da. The Clash taldearen euskerazko bersino bategaz hasi ziran eta lehenengo diskoetan punk, ska eta reggae errietoak nahastuten ebezan; letretan barriz, Euskal Herriko egoera sozio-

politikoa islatuten eben.

Sasoi haretako giroa birsortuko dau Txalainak tributu taldeak Arantzazun; euskal gizartea punk izan zanezkoa, hain zuzen be.



LABURBIRA

Euskerazko zazpi film labur ikusi ahal izango dira Igorre, Dima eta Areatzan

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dauan Laburbirak, euskerazko film laburren XX. zirkuituak, martiaren 6tik aprilaren 5era, euskerazko zazpi film labur eskainiko ditu 32 herritan; tartean, Igorren, Diman eta Aretzan.

Erredakzioa

Igorren, martiaren 18an, 20:00etan Lasarte Aretoan egongo dira ikusgai filmok; Diman, hilaren 24an, 19:00etan, Eskolako kamaran eta Areatzan, 31n, 19:30ean udaletxean. Areatza eta Igorren BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak antolatzen ditu emonaldioak udalen laguntzeagaz eta Diman Abizarie Euskara Alkartea eta Udala dira antolatzaile.

Aurtengo bildumea, *Olatuen isiltasuna*, *Muskil*, *Koadro goriari heldu*, *Irrits*, *Asko falta da?*, *Erlojupekoa* eta *Hitzak* filmek osotuten dabe.

Maria Bartolome, Erik Campos eta Fernando Martinek, 2023ko edizinoako Kameratoia irabazi eben *Olatuen isiltasuna* lanagaz. Film honetako protagonisteak urtero Lekeitioko kaleetatik egiten dauan ibilbidea kontetan dau pelikuleak.

Muskil, Marina Perosanz 21 urteko neska eibartarraren lana da. Perosanz Ikus-entzunezko Komunikazio graduako ikasketak egiten dabil eta hau da bere lehenengo film laburra. Pelikuleak, edadeko andrekin sufriduten daben indarkeria matxistea salatuten dau. *Muskil*, 1980ko hamarkadan garatzen da izen bereko baserrian. Bertan adineko bikote bat bizi da, Ixabel eta Pedro. Pedrok tabernan pasetan ditu egunak, Ixabelek baserrian bakarrik lan egiten dauan bitartean. Egun batean, bizilagun barri bat heltzean da, Luisa. Luisa eta Ixabel zenbat eta hobeto konpondu, orduan eta tratu txarragoak emoten deusaz Pedrok. Iñake Irastorzak, Jose Ramon Sorroizek eta Miren Arrietak egiten ditue aktore lanak.

Koadro goriari heldu lulen Aranak idatzi eta zuzendutako filma da. Donostiako Larrotxene Kultur Etxean zuzendaritza ikastaroa egin ostean egin eban filma. Herminia, egoitza baten bizi dan 91 urteko andra bakarti baten istorioa kontetan da bertan. Herminiak ez dauka inogaz hartu-emonik, zentroko langile bat berarengana hurreratzen saiatzen dan arte. Itziar Aizpuru,



Horacio Ubiria, Olatz Beobide, Maitane Aldako, Luis Fernández eta Puri Urretabizkaia dira film honetako aktoreak.

Irrits filmaren egileak, Maider Oleagak, ibilbide luzea egin dau zinemagintzan, 2001ean bere lehen lana egin ebanetik. Hainbat dokumental eta film labur ekoitzi eta zuzendu ditu eta sariak be jaso ditu, Donostiako zinemaldian, Euskal Gidoigileen Elkarteak emondakoa, tartean. *Irrits* pelikulan, Izaro eta Clara, 17 urteko nerabeak dira eta haurrentzako udaleketan, begirale lanetan dabiz. Halako baten, Clarak irrikaz mosukatzen dau Izaro. Izaro Nieto, Angela Echaniz Oyarzabal, Erika Olaizola eta Xabier Elizalde dira antzezleak.

Ane Cuestak sinatzen dau *Asko falta da?* filma. Mondragon Unibertsitatean ikasi eban Ikus-entzunezko Komunikazioa eta zinema zuzendaritza diplomaturea dago ikasten ECPV eskolan. Filmak indarkeria matxistea salatuten dau; bortsaketa bateri buruzkoa da, flashback bidez kontatuta. Maria Redondo,

Gaizka Sarasua, Iholdi Beristain, Unai Arana eta Beñat Iturbe dira aktoreak.

Leire Egañak, Zuzenbide eta Zientzia Politikoetan lizentziatu ostean, errealizazio zinematografikoa ikasi eban Londresen. *Erlojupekoa*, Udalbiltzak martxan ipinitako "Geuretik sortua" egitasmoaren barruan ekoizitako lana da. Film honetan, astronautaz jantzitako *rider* bateri enkargu bat jasoteko mezua helduten jako eta bere "misinoa" bete behar dau "erlojupekoa amaitu baino lehen".

Azkenik, Josu Martinez zinemagile eta EHUko irakaslearen *Hitzak* filmak, 1966an, Ipar Euskal Herriko Bizkarsoro izeneko herrixkan, lau neska gaztek lurperatuta egozan berbak aurkitutako berben istorioa dakar. Martinez Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea da eta Antropologian lizentziatua; zortzi film-luze dokumental eta lau fikzino laburren egilea. Lea Campistronek, Arantxa Hirigoienek, Titika Rekaltek eta Yaiza Arregik egiten dabez aktore lanak *Hitzak* film laburrean.

ANTZERKIA

Umeentzako antzerki ikuskizun bi egongo dira hilaren 18 eta 22an Lemoako Kotxepinen

Erredakzioa

Martiaren 18an, 12:30ean, Eidabe Ekimen Kulturalak konpainiak, 3 urtetik gorako umeentzako ipuin eta kantuz osotutako *Meri, Mari eta Lari* antzezlan eskainiko dau, eta 22an, 18:30ean, Saioa Ezkerrak, *Miruk, Kamishibai* paperezko antzerkia, 2 eta 4 ute bitarteko umeentzat. Ikuskizun biak Lemoako Kotxepin Kultur Etxean izango dira.

Galder Perezen gidoiagaz, Maria Urcelayk eta Yogurinha Borovak antzezten dabe *Meri, Mari eta Lari*, genero aniztasunaz, familia eredu desbardinez,

bildurrak baztertzeaz eta, azken finean, askatasunaz jarduten dauan antzezlan. Ikuskizuneko abestiak Yogurinha Borovarenak dira eta *Sentipenak askatu* diskoan bilduta dagoz.

Sonia Ezkerrak dakarren ikuskizunaren izenak, *kamishibai*, paper antzerkia esan gura dau, eta ahozkotasunean oinarritutako japoniar tradizioa da. Lanak umeen irudimena lantzean dau. Hamaika Telebistan eta euskerazko tokiko sei katetan, *1, 2, 3... hemen da Miru* umeentzako saioa emoten dau Sonia Ezkerra Miru ipuin kontalari eta aktoreak.



MUSIKEA

Micek *Lautada* diskoa aurkeztuko dau Lemoan



Erredakzioa

Martiaren 31n, 20:00etan izango da aurkezpen kontzertua Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Miren Narbaiza Martiartu (Eibar, 1986) da Mice izenaren atzean dagoan musikaria. 2005ean Ander Mujikagaz alkartu eta Napoka Iria taldea sortu eben. Hiru disko atera ebezan, eta 2017an desegin zan taldea. Orduan, bakarka hasi zan Narbaiza, Mice izena hartuta. Urte berean atera eban aurreneko diskoa, *Mice* izenekoa. Joseba Baleztena eta Ilargi Agirre bide-

lagun zituala. 2018an abesti bat atera eban *Bizia arnas* izenekoa eta 2019an bigarren bakarkako lana kaleratu eban, *Zilar printzak* EPa, hain zuzen be. Bere atzen diskoa, *Lautada* (2022) aurkeztuko dau Kotxepin Kultur Etxean.

Lautada diskoan parte hartu daben musikariak Miren Narbaiza, Joseba Baleztena, Ibai Gogortza, Iñigo Telletxea, Aitor Garcia de Bikuña, Julen Postigo, Mikel Santxez, Ilargi Agirre, Felix Buff, Mikel Txopeitia, Iñaki Urbizu "Pela", Libe Garcia de Kortazar eta Jon Basaguren dira.

KONTZERTUAK

Cecilia Payne-k eta Arimak kontzertua emongo dabe hilaren 31n Diman

Erredakzioa

Dimetaleroak Kultur Elkartekoek, andrazkoak lider daukiezan talde bi ekarri gura izan dabez martiko kontzerturako. Holan, hilaren 31n, 22:00etan, Cecilia Payne eta Arima taldeak gozatuteko aukerea egongo da Abaroa Aretoan. Arima taldeak, *Beldurrez beste egitea* bere azken diskoa aurkeztuko dau.

Lucia Palomarrek (ahotsa eta gitarra), Barezi Caballerok (gitarra eta ahotsa), Jone Ibarretzek (bajua eta ahotsa) eta Ander Benitok (bateria) osotuten dabe Cecilia Payne taldea.

Eguzkia, batez be hidrogeno eta helioz osotuta dagoala desku-

bridu eban Cecilia Payne-Gaposchkin astronomoaren izena hartu dauan taldearen musikea ez dala erraza definituduten dinoe euren



jarraitzaileek. Taldeak, 1980 eta 1990 hamarkadetako rock alternatibotik edaten badau be, beste eragin batzuk be baditu eta batez be, gaur egungo musikea egiten dabela dinoe. EP bi eta LP bat ditu kalean Cecilia Payne laukote bizkaitarrak.

Paule Bilbao da Arima taldeko buru eta Gontzal Bilbao, Ama Say taldeko kidea. Pauleren aita bateria jotzen, Josu Gonzalez baju jotzailea, eta Josu Palacios gitarra, dira Arima taldeko beste musikariak. Taldearen hirugarren diskoa da Diman aurkeztuko daben *Beldurrez beste egitea*. Aurretik, *Metamorphosis* (2019) eta *Biluztasunez jantzita* (2021) atera ebezan.

JARDUNALDIAK

Komunitarismoaren gaineko jardunaldia Artean

Erredakzioa

Botilak daraman mezua ekimenaren barruan, *Non dago gure tribua?* izeneko mintegia antolatu dabe Arteako Herriko Bentan martiaren 18rako. Egun osoa hartuko dau jarduerak eta bertan bazkaldu gura izan ezker, erreserba egin behar da 94 602 88 55 telefonoan.

Goizean, 11:30ean, Adrian Almazanek *Komunitarismo berriak ziurgabetasun garaietan*

berbaldea egingo dau. Almazan, Deustuko unibersidadeko Filosofia irakaslea da eta Ecologistas en Accion taldeko kidea. Beste egile batzuk batera, *Ecosocialismo descalzo* liburuan hartu dau parte eta Contexto y Accion (ctxt.es) agerkari digitalean kolaborazioak egiten ditu.

Arrastian, 17:00etan, hainbat kolektibotako kidek barriketaldia egingo dabe komunitarismoaren inguruan, jardunaldiari izena emoten deusn itaunari

erantzun guran. Kimua, Amillena Arrazolako Benta, Mimosak ortu komunitarioa, Otxantegi herri lurra eta Demokrazia komunalaren aldeko nazinoarteko sarea dira konbidautu dagozan kolektiboak.



IPUIN MUSIKATUA

Arratiako Musika Eskoleak *Neblaren bidaia* ipuin musikatua antzeztuko dau martiaren 26an Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

Martiaren 26an, domekea, saio bitan, lehenengoa 11:00etan izango da eta bigarrena 12:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasle eta irakasleek ipuin musikala antzeztuko dabe Igorreko Lasarte Aretoan.

Saio bakoitzean 80 ikasle inguruk hartuko dabe parte, Musika Eskolako 15 irakasleek osotutako orkestra batek lagunduta. Ikasle gehienak "lehenengo mailakoak" dira, 4 eta 8 urte bitartekoak, eta abestu, jantzan egin eta perku-

sino txikia jotzen dabe. Musika eskolako koruak, Kirikinusk, txikienei laguntzen deutse abesti guztietan. Honeek apur bat nagusiagoak dira 9 eta 13 urte bitartekoak" azaldu deusie BEGITURI Arratiako Musika Eskolatik.

Lehenengo saioan, Artea, Areatza, Lemoa eta Otxandioko ikasleek hartuko dabe parte eta bigarrenetan, Zeanuri, Igorre eta Arantzazukoek.

Afrikako musikea

Ikasturte honetarako aukeratu-tako gaia musika afrikarra da eta

Afrikari girotutako istorio baten narrazioa entzuteagaz batera, Afrikako hainbat herrialdetako musikan barrena, ibilbide bat egingo dabe, doinu tradizionalatik hasita, gaur egungo muskaraino.

Parte hartzaileen kopurua handia danez, eta kontzertura joateko familiei lehentasuna emon gura deutseenez, sarrera gehienak ikasleen artean banatuko dira; beraz, sarrerak eskuratzeke, Arratiako Musika Eskolako administrazioagaz ipini behar da hartu-emonetan.

ANTZERKIA

Maddi pirata umeentzako antzerkia egongo da Igorren**Erredakzioa**

Kurkulugetan alkartearen *Maddi pirata* antzezlana egongo da ikusgai martiaren 17an, 18:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

Antzezlana, kostaldeko ume alai baten istorioa kontetan dau. Maddi bere familiagaz oso pozik bizi zan, baina egun baten Miss Cauliflower erregina zitala, Txerriface kapitainaren laguntzeagaz, gaiztakeriak egiten, dirua lapurtzen eta guztien bitzta izorratzen hasi zan. Asko zan jokoan egoana: Maddiren ametsak, bere ohiturak, eta bere

herriaren askatasuna. Honen aurrean Maddik pirata bihurtzea ebazten dau.

"Piratak, sorginak eta enparauak beti personaia gaizkileztat aurkeztu deuskuez, baina askotan ez da holan izan. Historia idazten ebenek, askotan, errealidadea aldrebesten eben eta euren erara kontetan euskuen. *Maddi pirata* antzezlanean argi ikusiko da historia askotan ez dala kontetan euskuen moduan izaten, pirata guztiak ez zirala bardinak, sorginak ez zirala debruak..." dinoe Kurkulugetanekoek antzezlaren sinopsian.



ZINEKLUBA

Percy Adlon-en Bagdad Cafe 1987ko pelikulea dakar Igorreko Zineklubak**Erredakzioa**

Martiaren 16an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan, *Bagdad Cafe (Out of Rosenheim)* komedia dramatikoak ikusteko aukera egongo da. Percy Adlon-en zuzendaritzapean, Marianne Sägebrect, CCH Pounder, Jack Palance eta Christine Kaufmann dira pelikulako protagonisten rolak egiten dituen aktoreak.

Percy Adlon (Munich, 1935), zine zuzendari, gidoigile eta ekoizleak, Estatu Batuetan idatzi, zuzendu eta ekoiztu eban *Bagdad Cafe* edo *Out of Rosenheim* pelikulea. Filmak, bizimodua eta harremanak ulertzeko modu bi kontrajartzen ditu: giro magiko baten kaosa, eta bakardadea inguru galdu baten.

Argumentua

Jasmin Münchgstettner turista alemaniarra senarragaz haserretzen da eta Mojaveko basa-

mortuaren erdian geratzen da bakarrik. Banandu barri dan Brendaren kafe eta gasolindegira ailegetan da eta, hasikeran mesfidantzea nagusi bada be, apurka-apurka, Jasminek bertan biltzean dan jente guztia aldatuko dau eta andra bien artean adiskidetasuna sortuko da.



KONTZERTUA

Anarik kontzertua emongo dau Igorreko Gaztetxean**Erredakzioa**

Igorreko Kiñu Gaztetxearen IX. urteurrena ospatuteko ekintzen artean, martiaren 31n, 21:30ean kontzertua emongo dau Anarik, atea 21:00etan zabalduko dira. Sarrerak Igorreko Herriko Tabernan edo Gaztetxeke leihatilan bertan erosi daitezke egun berean, 6 euroko prezioan.

Euskal musikan, musikari handienetakoa da Anari Alberdi (Azkoitia, 1970), Donostiako Udalak bere ibilbide artiskoa omentzeko 2018an emondako Adarra sariak errekonoziduten dauan moduan. Bere diskoek, -tartean, *Zebra*, *Irla izan* edo *Zure aurrekari penalak*- eta zuzenekoek, kritika onak jaso eta arrakasta handia izaten dabe

publikoan. Atmosfera deserosoa sortzean daben poema ederak dira bere kantuen hitzak. Eleberri bat be idatzi dau Anarik *Gari eta goroldiozko* (Susa, 2022) titulupean.



PANTAILAK EUSKARAZ

Ibon Izak zuzendutako abesti eta bideoklipa aurkeztuko dau Pantailak Euskaraz ekimenak**Erredakzioa**

Ikus-entzunezkoen munduan euskereak daukan presentzia urria burrukatzeko eratu zan herri ekimena da Pantailak Euskaraz. Oin, burrukeari beste bultzada bat emoteko martiaren 18an proiektuaren ikur izango dan abestia aurkeztuko da Donostian ospatuko dan ekitaldi baten. Ibon Iza dimoztar eta Zinemak Euskaraz-eko bozeroalea izan da proiektuaren zuzendaria baina badagoz beste arratiar batzuk be lantaldean: Lander Gurtubai kamaran, Joseba Rodriguez edizinoan eta Imanol Garcia post-produkzioan.

Ibon Izak BEGITURI azaldu deusanez, Oihana Bartraren berbakaz egin da abestia eta

bertan, euskal kultur munduko jente ezagun zein herritarrak urtengo dira kantetan. Bideo-kliparen ardatza, hizkuntzearen bitartez sortzean dan mundu ikuskerea dala be aurreratu dau Izak: "Ikusiko dozuenez, bideo-kliparen irudia karratu bat da eta bertan, mundua zelan ikusi gura



dogun. Guk, euskeratik eta euskeraz ikusi gura dogu mundua".

Izan be, pantailak euskeraz konsumidutearen garrantziaren inguruan galdetuta, Izak azpimarratu dau hizkuntzea dala bakotxaren mundu ikuskerea baldintzatuten dauana. Beraz, euskerea errealidadea ulertuteko modu bat dala defendiduten dau, "ez hobea ez txarragoa". "Horregaitik da hain garrantzitsua euskeraz hartzea, hori izango garalako geu". Mundu ikuskera honegaz lotuta, Paul Urkixoren *Irati* filma aurrerapausu bat izan dala be azaldu dau: "Ez da euskeraz dagoan filma bakarrik, euskeratik dator. Oin arte buruan euki dogun mundu hori -Mari, Tartalo...- pantailetan ikusteak hotzikarak emoten dauz".

IRAKURLE TXOKOA

Julen Gabiria egongo da Igorren**Erredakzioa**

Martiaren 20ko saioan, 17:00etan, Art Spiegelman-en *Maus* (Astiberri, 2022) nobela grafikoa daukie Igorreko Irakurle Txokokoek berbagai Kultur Etxean. Bertan, komikia euskerara ekarri dauan Bediako Julen Gabiria idazle eta itzultzailea be egongo da.

Maus nazien sarraski-esparruetatik bizirik urtendako judu poloniar baten biografia da. Gizon hori Vladek Spiegelman deitzean zan, eta Art semeak kontetan dau



bere historia komiki baten bitartez. Lan honen erradikalitasun narratiboagaitik emon eutsien Pulitzer saria komikiari.

Gabiriak, hau euskeratzean aurre egin behar izandako erronka edo-eta ebatzien barri jakiteko aukerea izango dabe batutakoek. Gabiriaren lanik ezagunenak, *Connemara gure bihotzetan* eta *Han goitik itsasoa ikusten* da eleberriak dira, eta, itzulpenen artean, *Maus* komikiaz gainera, James Mathiew Barrie-ren *Peter Pan* eta Ander Izagirre-ren *Beruna patriketan* lanak.

ERAKUSKETEĀ

Igorreko ondarea erakusten dauan erakusketea egongo da ikusgai hilaren 24tik

Martiaren 24tik aprilaren 28ra arte egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Gelan, *Igorre ezetu* izeneko erakusketea.



Erredakzioa

Bertan, herriko ondarearen parte diran eraikinen irudiak erakusten dira, 2022 eta 2023ko egutegietan agertzen ziranak eta beste 12 irudi barri be izango dira bertan. Angel Larrea historialari zeanuriztarrak aukeratu ebazan eraikinak edo lekuak daukien balio historikoa-

gaitik egutegietarako, eta Martin Ortega Areatzakoak egin ebazan ilustrazioak. Egutegi horreek, Zertu Kultur Elkartek kudeatu ditu Igorreko Udalagaz batera.

Egutegietan agertzen diran irudiak, gai bera daukien Ortegaren beste dozena bat lan eta Larrearen azalpen testuak egongo dira *Igorre ezetu* erakusketan.

BERTSO-SAIOĀ

Saioa Alkaiza, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio Igorren

Martiaren 19an, 18:00etan, sanjosetako bertso-saioa izango da Igorreko Kultur Etxean. Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta, bertsolaririk ezagunenak ekarten ditu Igoerrera urtero. Saioa Alkaizak, Sustrai Colinak, Unai Iturriagak eta Maialen Lujanbiok osotuten dabe aurtengo kartela.

Erredakzioa

Saioa Alkaizak (Iruñea, 1991) Nafarroako Bertsolari Txapelketea irabazi eban 2021ean eta 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiako finalaurreetara heldu zan. Kazetari eta idazle lanetan be jaso ditu sariak. Euskalerrira irratirako *Sanfermintza* saioan egindako alkarrizketa bategaz, genero bardintasunaren kazetaritza saria irabazi eban. 2020an, Iruñeako I. Bertso Paper Lehiaketea irabazi eban eta Iruñeako Udalak antolatzen dauan Egile Berriendako Euskerazko Literatur Lehiaketan sari bi ditu. Bata, narrazio modalidadean, *Ez dago hondoratzerik* lanagaitik; eta bestea, poesiakoan, *Helduroaren bezperan* lanagaitik.

Sustrai Colinak (Urruña, 1982),

bitan irabazi dau Xilaba Bertsolari Xapelketa, 2014 eta 2016an eta seitan izan da finalista Bertsolari Txapelketa Nagusian. Bertsolaria, bertso irakaslea eta kazetaria da. Lanik handiena bertsolaritzan egin arren, zutabeak be idazten ditu Berria egunkarirako, eta alkarrizketak Argia astekarirako.

MAIALEN Lujanbio
Sustrai Colina



SAIOA Alkaiza
Unai Iturriaga



DUNBA

Inauteriak

Aurten gure inauterien gaia lanbideak izan da. Urtero legez, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak izan ginan frontoiaren dekorazioaz arduratu ginanak, eta anbulantzia bat, itsasontzi bat, sorosleen-postu bat eta lan desbardineta lau mural egin genduzan. Leloa be idatzi genduan: "Handitan zer izan gure duzu? Erabakitzen duzun bitartean... amets egin, probatu eta zikindu".

Zeanuriko 5. mailako ikasleak

Zezeilaren 17an Lehen Hezkuntza osoa Arkotxara joan eta bertan Haur Hezkuntzakoakaz bat egin genduan. Mozorro ederrak jan-

tzita (Haur Hezkuntzakoak, mediku; LH 1. ziklokoak, obreru; LH 2. ziklokoak, arrantzale eta LH 3. ziklokoak sorosle), kalejiran frontoiraino joan ginan. Bidegidari zuzendaria, zientzilari mozorrotuta,

musika arduradun ibili zan. Heldu ginanean, 6. mailakoek emonaldari hasikerea emon eutsien. Eskolako ikuskizuna amaitu eta gero, 6. mailako gurasoek, ezustean, jantza bat eskaini eta amaieran, mezu bat aldarrikatu eben: "6. maila: jagon zuen harremana, mimo, maitasunez eta euskeraz".

Guk be, BEGITU idazten dogula aprobetxauz, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikaskideei agur esan gaura deutsegu bertso honeekaz:

Zuek joan baino lehen esangogu zera eskolara etorteko badekozue aukera.



Lagunekaz ere bai egizue euskera. Istitutoan ere segidu topera.

Seigarren mailakoak bai denak antzera andereño guztiak zuekz batera, urterik urte egin dozue aurrera. Agur seigarren maila hau da bukaera.

Amaitzeko, eskerrak emon gura deusaguz Guraso Elkarteari frutabrotxeta, bizkotxo, eta txokolatea oso gogo egin ziralako.

AGENDEA

MARTIAK 15
AREATZA

Guraso Elkarteak maiatzaren 26an egingo dauan Merkatu Txikian saltzeako objektuak (liburuak, jostailuak, umeentzako gauzak...) bilduko dauz. Eskolako tejobanako txokoa itxi daitezke 09:30etik 09:45era.

Hilaren 19an izango dan Areatzako Audiogidaren aurkezpenarako izen-emotea 94 612 26 95 telefonoan edo turismo@gorbeialdea.com helbidean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hilaren 29ra arte, Errigora herri ekimeneko produktuen eskaerak egin daitezke errigora.eus webgunean edo herriko arduradunaren bitartez.

Bagilaren 26tik garagarriaren 4ra UEMAKo Salto! udaleku ibiltaria. Hilaren 31ra arte, udalerrri euskaldunetako gazteek emon daikie izena uema.eus webgunean edo 943 81 66 99 telefonoan. Parte-hartzaileek Orozkotik Dimarako bidea egingo dabe.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 26ra arte, Txiki Txoko, Udalekuearako, Uda Gaztearako eta Ludosport Udako Ludotekarako izen-emotea liburutegian.

IGORRE

Bonodenda kanpaina martxan. Bonuak, Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan erosi daitezke, astelehen, eguazten eta barikuetan 10:30etik 12:30era, eta martitzen eta eguenetan 18:00etik 20:00etara.

Oinarrizko bizi-euskarriko eta desfibrilazio erdiautomatiko ikastaroan izena emoteko atzen eguna. Izena igorreztarrek emon daikie Kultur Etxean 09:00etik 14:00etara eta 16:30etik 20:45era, edo kulturetxea@igorre.net helbide elektronikora idatzita.

Apirilaren 10etik 12ra izango diran Udabarrilekuean izena emoteko epea zabalik hilaren 23ra arte. Izena 688 898 765 telefonoan emon. Jolasak, olinpiadak, gaubelak... 12-16 urte bitartekoentzat. 25 euro. Maratuk antolatuta.

19:30ean, abuztuaren 1etik 12ra Zazparrak Asti Taldeak Zurriolan antolatu dauan udalekueetako batzar informatiboa. Kultur Etxean.

Arratiak aprilak 3, 4 eta 5erako futbol kanpua antolatu dau 2011 eta 2018 artean jaiotako -biak barne- ume eta gazteentzat. Goizeko 09:30etik 14:00etara eta jolasak, urtekerak eta abar egongo dira; izen-emotea 60 euro. Izena cdarratia@cdarratia.com eta 688 777 117 eta 94 631 57 04 telefonoetan emon hilaren 24ra arte.

LEMOA

Pausoz pauso erronkarako izen-emotea www.lemoa.net webgunean.

17:30ean, Parke bio-osasungarria masterclass Ibaizabal parkean.

ZEANURI

Hilaren 26ra arte, Gorbeia Suzien lasterketerako izen-emotea zabalik gorbeiasuzien.eus webgunean.

ZEBERIO

19:00etan, andrei zuzendutako *Autozaintza emozionala* ikastaroaren lehenengo saioa eskola zaharrean.

Apirilaren 11tik 16ra, 2016tik aurrera jaiotakoentzat egingo dan Aste Santuko kanpusean parte hartzeako izen-emotea 666 025 389 (Aitor). Kanpusa

09:00etatik 14:00etara izango da eta 50 euroko prezioa dauka. Frontoiko kirolak, sensibilizazioa, eskulanak frontoiko jolasetarako, talde lana eta psikomotrizitatea eta beste jolas batzuk egingo dira bertan.

MARTIAK 16
AREATZA

09:30ean, Uparan Areatzako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartearen urtekerea. Uribitarte-Barrondo-Akauri-Elizondo-Undurragako urtegia-Ortuzar-Zulaibar, pintxo-potea Zeanuriko jubilduen taberna eta gero Areatzara. Ibilbide osoa egin ezin dabenak, Zeanurin egon daitezke 12:30ean eta gero taldeagaz itzuli Areatzara.

19:00etatik 20:00etara, martiaren 25eko Lau eskutara kontzertu gastronomikorako sarrerak salgai udaletxean.

IGORRE

20:00etan, Zinekluba *Bagdad Cafe* Lasarte Aretan.

MARTIAK 17
ARANTZAZU

19:00etan, Begoña Zabalaren berbaldua *Justizia eta feminismoa* Kultur Gunean.

AREATZA

15:45ean, Valladolid-era urtekerea Valladolid-Athletic partidua ikustera. Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peña.

19:00etan, Cotton Blues taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

19:00etatik 20:00etara, martiaren 25eko Lau eskutara kontzertu gastronomikorako sarrerak salgai udaletxean.

19:30ean, Jai Batzordea, batzarra udaletxean.

BEDIA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Autodefensa feminista* tailerreko saioa Ester Lopez Monjeren eskutik Errekaondo udal lokalean.

18:15ean, Udalak eta Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, astegoieneko eski urtekerea Baqueirara. Udaletxe ondoan.

DIMA

18:30ean, *Liztor asiarra eta erleak* berbaldua udaletxeako pleno aretoan.

IGORRE

18:00etan, *Maddi Pirata* umeentzako antzerkia Lasarte Aretan.



Thierry Biscary izango da Igorren martiaren 31n

Hilaren 31n, 18:00etan, Igorreko Lasarte Aretan egongo da Thierry Biscary abeslari eta txalapartari baxenafarra. *Manez eta Kobreak*, *Manez B* eta *Muda* diskoen sorrera prozesuak kontau, eta diskootako kantuak abestuko ditu.

Byscaryk, 2009an, Kalakan taldea sortu eban Katia eta Mirelle La-bèque-gaz, mundu osoan ezaguna egin zana Madonnaren bira mundialean parte hartu ebalako. 2018an bakarka hasi zan, Manez ezizena hartuta. 2020an *Muda* izeneko diskoa aurkeztu eban, bere izenagaz.

Igorreko kontzertuan, bere kantuak aurkeztuko ditu, lekukotasun intimo bat emonaz, "bere ahaide, auzokide, adiskide edo ezagun batzuen bizi parteak kontatzen ditu". Horreek kontetako, Jon Maia, Uxue Alberdi, Xabier Euzkitze, Aurelia Arkotxa eta Itxaro Bordari eskatu eutsen istoriook idazteko.

ZEBERIO

19:30ean, Ahoztar Zelaieta. *Osakidetza kontu-kontari* eskola zaharreko jantokian.

MARTIAK 18
ARTEA

Botilak daraman mezua "Non dago gure tribua?". 11:30ean, Adrian Almazanen berbaldua *Komunitarismo berriak ziurgabetasun garaietan*; 14:30ean, indaba jana. Erreserbak 94 602 88 55; 17:00etan, solasaldia, Kimua, Amillena Arrazoloko Benta, Mimosak ortu komunitarioa, Otxantegi herri lurra eta demokrazia komunalaren aldeko nazinoarteko sareagaz. Herriko Bentan. Ostean, 20:00etan, Kimosoundz Dj-a.

BEDIA

VII. Kolazinoko Mendi Eguna.

IGORRE

20:00etan, Laburbira euskerazko 7 film labur Lasarte Aretan.

LEMOA

12:30ean, *Meri, Mari eta Lari* umeentzako antzerkia Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

22:15ean, pelota partidua Ibarretako frontoian. Binakako Promozino Txapelketako finalerdietako Igea. Zabala-Gaskue vs Larrazabal-Eskiroz eta Bakaikoa-Morgaetxebarria vs Salaberria-O. Etxebarria. Sarreraren aurralsalmetea udaletxean. Zeanurikoek 10 euro.

MARTIAK 19
AREATZA

10:00etatik 15:00etara, merkadua plazan. 11:00etan, Areatzako Audiogidaren aurkezpena, bisita gidatua Gudarien plazan. Izena emon 94 612 26 95 telefonoan edo turismo@gorbeialdea.com helbidean. 12:30ean, RkeR euskal fanfarria tabernaz taberna. Taloak egongo dira.

IGORRE

18:00etan, San Josetako bertso-saioa. Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Saioa Alkaiza eta Unai Iturriaga. Lasarte Aretan. Zugatz Eguna. 11:00etan, eskolan batu. Zugatzak landatu ostean, mokautxo.

MARTIAK 20
IGORRE

17:00etan, Irakurle Txokoa Julen Gabiriak itzultitako *Maus* nobela grafikoaren gaineko saioa. Gabiria be egongo da Kultur Etxean.

18:00etatik 20:00etara, *Oinarrizko bizi-euskarriko eta desfibrilazio erdiautomatiko* ikastaroa Kultur Etxean.

MARTIAK 22
IGORRE

10:00etatik 13:00etara, Ondare Inmaterialaren inguruko topaketak Kultur Etxean.

LEMOA

18:30ean, 2 eta 4 urte bitarteko umeentzako

Sonia Ezkerraren *Miru Kamishibai* paperezko antzerkia Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etan, Mazala andra taldeak antolatutako *Exijentzia ala eszelentzia* tailerra Ainoa Astiazaranen eskutik Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:00etan, *Autozaintza emozionala* ikastaroa saioa eskola zaharrean.

MARTIAK 23
IGORRE

18:00etatik 19:30era, *Arteterapia* ikastaroa saioa Kultur Etxean.

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta Mendi Tour, Mendi Filmeko onena: *Iretargi*, *Agur Artzi*, *Egoland* eta *Not Alone* filmak Lasarte Aretan.

17:00etatik 19:00etara, abuztuaren 1etik 12rako Zazparrak Asti Taldeak Zurriolan antolatu dauan udalekueetako izen-emotea. Kultur Etxean.

MARTIAK 24
ARANTZAZU

21:00etan, Kultur Batzordeak antolatuta, Txalainak (Hertzainak-en moldaketa akustikoak) taldearen kontzertua Herriko Tabernan.

ARTEA

19:00etan, Irakurleen txokoa, Iñaki Irasizabalen *Osoa etorriko da* liburuen lanketea Kultur Etxean.

20:00etan, Jai Batzordea Kultur Etxean.

BEDIA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Autodefensa feminista* tailerreko saioa Ester Lopez Monjeren eskutik Errekaondo udal lokalean.

DIMA

19:00etan, Laburbira euskerazko 7 film labur eskolako kamaran.

IGORRE

Apirilaren 28ra arte, *Igorre ezetu* erakusketea Kultur Etxean.

17:00etatik 19:00etara, abuztuaren 1etik 12ra Zazparrak Asti Taldeak Zurriolan antolatu dauan udalekueetako izen-emotea. Kultur Etxean.

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta Mendi Tour, Mendi Filmeko onena: *This is Beth*, *New Way Up* eta *De l'ombre a la lumière* filmak Lasarte Aretan.

MARTIAK 25
AREATZA

20:00etan, Lau eskutara, Ibon Azkona eta Vicent Zaragozaren kontzertu gastronomikoa, Berriztuko gazteakaz lankidetzan, komentuan.

22:00etan, William, blues eta rock kontzertua The Quiet Corner tabernan.

IGORRE

18-30 urte bitartekoentzako Iretza sagardotegira urtekerea. Maratu.

20:00etan, *Ez naiz inoiz Dublinen* egon antzerkia Lasarte Aretan.

MARTIAK 26
ARANTZAZU

19:00etan, Bea Egizabalen *Magma mia* umorezko bakarrizketea Kultur Gunean.

ARTEA

10:30etik 14:00etara, merkadua plazan.

IGORRE

11:00etan eta 12:30ean, Arratia Musika Eskolako ipuin musikala Lasarte Aretan.

17:00etan, zinea *El chico leon*; 19:30ean, *Irati* Lasarte Aretan.

ZEBERIO

10:00etan, umeen herri kirol txapelketea frontoian; 14:30ean baba-jana. Txartelak 23ra arte salgai Herriko Tabernan, Maribiren denda eta Amañe tabernan.

MARTIAK 27
IGORRE

18:00etatik 20:00etara, *Oinarrizko bizi-euskarriko eta desfibrilazio erdiautomatiko* ikastaroa Kultur Etxean.

LEMOA

09:15etik 14:15era, hilaren 31ra arte, interneten bidez lana bilatzeko prestakuntza ikastaroa Kotxepin Kultur Etxean. Izena emon lemoanlan@aldalan.com helbidean edo 94 602 62 09 telefonoan.

MARTIAK 29
BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalegatz liburutegian.

ZEBERIO

19:00etan, *Autozaintza emozionala* ikastaroa saioa eskola zaharrean.

MARTIAK 30
LEMOA

17:30ean, berrerabilpenaren inguruko dokumentalak eta solasaldia jubilduenean.

MARTIAK 31
AREATZA

19:30ean, Laburbira euskerazko 7 film labur udaletxean.

DIMA

22:00etan, Dimetaleroak Kultur Elkarteak antolatuta indie estiloko Cecilia Payne eta pop-rock-eko Arima taldeen kontzertuak Abaroa Aretan.

LEMOA

20:00etan, Mice taldearen *Lautada* diskoaren aurkezpen kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

IGORRE

21:30ean, Anariren kontzertua Kiñu Gaztetxean. Sarrerak Igorreko Herriko Tabernan salgai eta egun berean takillan. 6 euro.

APRILAK 1
AREATZA

Hilaren 16ra arte, euskal mendizaletasunaren inguruko *Mendian gora* erakusketea Parketxean. Emmoa Fundazioaren eskutik.

ZEBERIO

Zeberioko Gazte Eguna.

APRILAK 2
IGORRE

17:00etan, zinea umeentzat; 19:30ean, zinea nagusientzat Lasarte Aretan.



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KO MI KI A

Kailo
Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

FURGONETEA SALTZEAN DOT

1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot. Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

MOBIKORTASUN MURRIZTUA DABENENTZAT MOTORRA SALGAI

Mobikortasun murriztua edo desgaitasuna daben personentzako motorra. Libercar Urban Scooter elektrikoa. Bateria barria 2022an ipinita. Ez da erabilten 2022ko bagilatik. Interesdunek deitu 676 936 010 telefonora.

TXAKURRAK OPARITUTEN DODAZ

Ama mastina da eta aita border collie-a.

Hiru hilebete daukiez. Interesdunek deitu 657 724 435 telefonora.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketarako egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebexan. Interesdunek deitu 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

Zeozero saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Ez naiz inoiz Dublinen egon antzezlanerako.**

Miren Atutxa (Igorre)
Lur Olabari (Zeanuri)



2 Kiñu Gaztebexak emondako sarrera bi **Anariren kontzerturako.**

Aimar Gorospe (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Baxarra egin eta bukunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38 IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

begitu eus

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

ZEKUTZE JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

begitu eus

**IGORRE
E.Z.E.T.U**

ERAKUSKETE
2023-03-24tik 2023-04-28ra
IGORREKO KULTUR ETXEAN

IGORRE Donostia Herria Donostia Kulturak

ESTUDIO DUENDE

begitu 20 urte

BAGU-LAGUN BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BAGU-LAGUN! BAGU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.